



INBENTARIOA ETA ESTRATEGIA. 2023 URTEA

GEOLOGIA INTERESGUNEAK

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

Dr. Asier Hilario / Dra. Miren Mendia / Dr. Luis Miguel Agirrezabala / Dra. Arantza Aramburu / Dr. Martin Arriolabengoa /
Dr. Xabier Orue-Etxebarria / Dr. Manu Monge-Ganuzas / Dra. Inma Mugerza / Cándido García



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



AURKIBIDEA

1. Testuingurua eta aurrekariak

2. Helburuak

3. Lantaldea eta metodologia

4. Geologia

- 4.1. Mapa geologikoa
- 4.2. Deskribapen geologikoa
 - 4.2.1. Testuinguru geologikoa
 - 4.2.2. Bereizgarri geologikoak
 - 4.2.3. Historia geologikoa eta estratigrafia
 - 4.2.4. Paleontologia
 - 4.2.5. Tektonika
 - 4.2.6. Geomorfologia
 - 4.2.7. Hidrogeologia
 - 4.2.8. Erauzketa

5. Geologia-interesguneen inbentarioa

6. Inbentarioaren azterketa

- 6.1. Banaketa, geografikoki
- 6.2. Banaketa, gaika
- 6.3. Indize bibliometrikoa (zenbateraino izan den aztertua)
- 6.4. Balio intrintsekoa
- 6.5. Erabilera publikoa
 - 6.5.1. Ulerterraztasuna
 - 6.5.2. Dibulgazioa eta material didaktikoa
 - 6.5.3. Irigarritasuna eta erabilera publikoko azpiegiturak
- 6.6. Balio intrintsekoa + erabilera publikoa
- 6.7. Geokontserbazioa
 - 6.7.1. Kontserbazio-egoera
 - 6.7.2. Kalteberatasun-maila
 - 6.7.3. Araudia

1. eranskina: Baloraziorako parametroak

2. eranskina: Balorazioen taula

3. eranskina: Tipologia eta garrantzi maila IUGS parametroen arabera

4. eranskina: Euskal Kostaldeko Geoparkearen inguruko herrietako interesgune geologikooak

Bibliografia

1. TESTUINGURUA ETA AURREKARIAK

Euskal Kostaldeko Geoparkea 2010. urtean izendatu zuten kategoría horrekin, nahiz eta urte batzuk lehenago abiarazi zituzten ziurtapen hori lortzeko ekimenak. Hauek izan ziren mugarri garrantzitsuenak:

- 2005. urtea. Algorri interpretazio-zentroa ireki zuten.
- 2007. urtea. Paleozenoko estratotipoak definitzea.
- 2007. urtea. Nautilus museoaren irekiera.
- 2009. urtea. Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko Biotopo Babestua deklaratu zuten.
- 2010. urtea. Flyscharen ibilbideak Turismoaren Euskadi Saria eskuratu zuten.
- 2010. urtea. Paleozenoko estratotipoak jartzeko zeremonia.
- 2010. urtea. Geoparkea deklaratu zuten.
- 2013. urtea. Geoparkeko Interes Geologikoko Lekuen lehen inbentarioa egin zuten.
- 2013–2015 urteak. Ikerketa gehiago egin ziren geoparkearen estuarioetan.
- 2015. urtea. UNESCOren Geoparkeen Nazioarteko Programa onartu zuten.
- 2015. urtea. Espainiako Geologia Elkarteko Ondare Geologikoaren Batzordearen bilera antolatu zuten.
- 2016. urtea. Europako Geoparkeen Sarea Koordinatzeko Batzordea antolatu zuten Geoparkean.
- 2017. urtea. EAEko Geodibertsitateari buruzko III. Jardunaldiak antolatu ziren.
- 2022. urtea. Geologia Zientzien Nazioarteko Batasuneko Geologia Ondarearen lehen 100 guneen artean sartu zuten Zumaia flyscha.
- 2013–2023. Ikerketa gehiago geoparkeko flyschean.
- 2013–2023. Ikerketa gehiago geoparkeko karstean.
- 2022. urtea. Landa-lana inbentarioa eguneratzeko eta Interes Geologikoko Leku gehiago biltzeko.
- 2023. urtea. Geoparkeko geologia-interesguneen (GIG) inbentarioa eguneratzea.

GEOPARKE bat balio geologiko handiko lurraldea da, zeinaren toki-garapeneko estrategiak garrantzi berezia ematen baitio lurralde horretako ondare geologikoari. Geoparkearen definizioan inplizituki sarturik dago interes geologikoko lekuen (IGL) presentzia, eta horiek islatzen dute lurralde horretako ondare geologikoa. Ildo horretan, interes geologikoko lekuen inbentarioa funtsezko tresna da ondare hori detektatzeko eta hura kudeatzeko estrategia egokia diseinatzeko.

Geoparkeak 2013an egin zuten geologia-interesguneen (GIG) lehenbiziko inbentarioa. Han, 54 interesgune sartu zituzten, zeinek ederki islatzen baitute geoparkearen historia eta bilakaera geologikoa. Geologia-interesguneen hautaketa eta deskribapena garai hartako jakintza zientifikoan oinarrituta egin zen. Geologia-interesguneen azterketa kuantitatibo eta kualitatiboari esker, kudeaketa-gomendio jakin batzuk ere egin ziren.

Haietako asko guztiz edo partzialki bete dira, eta, besteak beste, azpimarratzekoak dira zenbait ikerketa-ekimen, haiei esker hobeto ezagutu baititzakegu karsten egungo geologia eta periodo koaternarioan paisaiak izan zuten bilakaera, Mutrikuko ammoniteen azterketa edo Debako septarien bilketa eta azterketa. Era berean, hobekuntza handiak izan dira erabilera publikoaren antolamenduan eta horrek ingurune geologikoan duen eraginean, eta nabarmen hobetu da, orobat, ondare geologikoaren interpretazioa. Aipatzekoak dira, ildo horretan, flyscharen aztarna fosilak kontserbatzeko ekimen garrantzitsuak, gaur egun Zumaia Algorri zentroan aurki daitezkeenak.

Lan honek eguneratu egiten du 2013ko inbentarioa; hala, hamar geologia-interesgune gehiago txertatzen ditu, gomendioak eguneratzen ditu eta erronka gehiago jasotzen ditu. Eguneratze honek ederki asko islatzen du jakintza zientifikoaren bilakaera positiboa, bai eta Geoparkean azken 15 urteetan ondare geologikoa kudeatzen izaniko esperientzia ere.

2. HELBURUAK

Geoparkeko GIGen inbentarioa egiteko helburu nagusiak hauek dira:

- 1.** Geologiaren aldetik interes handieneko lekuak zein diren identifikatzea eta geografikoki zehaztea, kontuan hartuta bai haien balio zientifikoa, bai didaktikoa, bai turistikoa. Leku horiek guztiek, osotasunean, Geoparkeko geodibertsitateak bereizgarri dituen adin, litologia, egitura, fosil, mineral eta prozesu guztien erregistro osoaren adierazgarri izan behar dute.
- 2.** Aztertea leku horiek zenbateraino dauden ondo kontserbatuta eta zenbatekoa den bakoitzaren kalteberatasun-maila, eta horren arabera, leku horiek babesteko estrategia bat prestatzea.

- 3.** Leku bakoitzari buruzko gaur egungo ezagutza-maila aztertea, eta ikertzeko estrategia bat prestatzea.

- 4.** Aztertea zenbateko aukerak dituen leku bakoitzak erabilera publikorako (didaktikoa nahiz geoturistikoa), eta horretan oinarrituta, egungo egoeraren diagnosa egitea eta dibulgaziorako estrategia bat prestatzea.

Geoparkeko geologia-interesguneak puzzle handi baten piezak dira, eta haien bitartez aukera paregabea dugu lurralde honetako historia geologikoa berregiteko, paisaia hau modelatu duten prozesuak berreraikitzeko. Leku horiek guztiek iraun dezaten zaintza eta behar bezala erabiltzea gu guztion ardura da.

3. LANTALDEA ETA METODOLOGIA

3.1. LANTALDEA

- Proiektuaren koordinatzaile nagusia:

Asier Hilario dk.: Euskal Kostaldeko Geoparkeko zuzendari zientifikoa.

- Gaietan adituak:

Miren Mendia dk.: Ondare geologikoa. Mineralogia eta Petrologia saila. UPV-EHU.

Luis Miguel Agirrezabala dk.: Estratigrafia. Estratigrafia eta Paleontologia saila. UPV-EHU.

Arantza Aranburu dk.: Karst. Mineralogia eta Petrologia saila. UPV-EHU.

Dr. Martin Arriolabengoa: Karst. Mineralogia eta Petrologia saila. UPV-EHU.

Xabier Orue-Etxebarria dk.: Paleontologia. Estratigrafia eta Paleontologia saila. UPV-EHU.

Manu Monge dk.: Itsasertzeko geologia. Harea. UPV-EHU.

Inma Mugerza dk.: Hidrogeologia. Hydrolur.

Cándido García: Karts Eta kobazuloak. Felix Ugarte Elkartea.

3.2. METODOLOGIA

Geoparkeko GIGen inbentarioan balio zientifiko handieneko lekuak daude sartuta, bai eta alderdi didaktikotik edo geoturistikotik aukera askokoak edo oso erakargarriak diren lekuak ere. Bestalde, inbentarioa lurralde honetako geologiaren erakusgarri da, eta lekurik berezienak eta bakanenak ere hartzen ditu barne. Inbentarioak, dena den, dokumentu irekiak dira, denboraren joanean aldatuz joan beharrekoak.

GIGen balorazioari dagokionez, inbentarioan bi atal bereizi behar dira. Alde batetik, informazio kualitatiboa dago, GIG bakoitzak zer alderditatik duen interesa eta zer ezaugarri zientifiko dituen deskribatzeko. Eta bestetik, balorazio kuantitatiboa du inbentarioak, lekuak alderatu eta sailkatu ahal izateko; alderaketa eta sailkapen horietan oinarrituta, izan ere, ondorioak atera ditzakegu, ondare geologikoaren kudeaketa zer lan-ildotan oinarrituta egin behar den finkatzeko. Horretarako, zenbait gomendio ere eman ditugu fitxa bakoitzean, ikerketaren, erabilera publikoaren eta geokontserbazioaren arloekin lotuta.


Inbentarioko eguneratzea egiteko, metodologia honi jarraitu diogu:

- Aurretik egindako inbentarioa, egungo bibliografia eta sortu den jakintza berriaren azterketa
- Gaietan adituak direnek GIG berriak proposatu. Lehen lagin bat lortu.
- Lehen lagina adierazgarria den aztertu.
- Proposamen modura GIGen zerrenda eguneratu.
- Landa-lanari ekin eta proposatutako GIG guztien balorazioa egin da aurretik definitua zegoen fitxa jarraituz. Fitxa hori EAEko GIGen inbentarioa egiteko erabili zen metodo-dologian oinarrituta dago, eta hura, berriz, guztiz bateragarria da Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutuak estatuko inbentarioa egiteko proposa-tutako metodologiarekin. Bateragarritasun horiek garrantzitsuak dira, oso, horrek aukera ematen baitu zenbait mailatako inbentarioren artean GIGak alde-razteko eta esportatzeko (geoparkeak, autonomia-erkidegoetako inbentarioak, estatu-mailakoak, Europakoak...).
- Geoparkeko GIGen inbentarioko behin betiko zerrenda egin.
- Datuak aztertu eta Geoparkeko ondare geologikoa kudeatzeko oinarritzko zenbait gomendio proposatu.

SINTESI GEOLOGIKOA

04

4.1. GEOPARKEKO MAPA GEOLOGIKOA




LEGENDA

Unitate kronoestratigrafikoak


Unitate litoestratigrafikoak

Deskribapena



21. Sedimentuak.
20. Jaizkibel Formazioa. Hareharri, tupa eta lutita geruzatuak.
20a: Tupa, kareharri eta hareharri geruzatuak.
20b: Hareharri eta lutita txandakatuak.
19. Itzurun Formazioa. Tupa eta kareharri geruzatuak.
18. Alzgorri Formazioa. Kareharri eta tupa txandakatuak.
17. Zumaia-Algorri Formazioa. Tupa eta kareharri geruzatuak.
16. Aginaga Formazioa. Hareharri, tupa eta kareharri txandakatuak.
15. Itziar Formazioa. Tupa eta kareharri tupa txandakatuak.
15a: Mendata Muturra Geruza. Breba.
14. Mendexa Formazioa. Hareharri masibo oso lodia eta lutita.
13. Kardala Formazioa. Lutita gris argia.
12. Nutriku Formazioa. Greywacke eta lutita hareatsu bihurtuak.
11. Deba Formazioa. Hareharri eta lutita txandakatuak.
11a: Alkolea Atala. Megabreba polimiktikoa.
11b: Ondarbeltz Geruza. Hareharri-breba.
10. Alzola Formazioa. Hareharri eta lutita txandakatuak.
9. Ondiarroa Formazioa. Konglomeratu silizeo, hareharri eta lutita.
8. Berriatua Formazioa. Lutita gris iluna.
8a: Milloi Atala. Kareharri-megabreba eta olistolitoak.
7. Zestoa Formazioa. Greywacke eta lutita hareatsu karetsuak.
6. Erlo Formazioa. Kareharri, tupa eta breba.
6a: Kareharri mikritatsu masibo fosiltsua
6b: Tupa eta kareharri tupa
6c: Kareharri-breba
5. Kakuta Formazioa. Kareharri, tupa eta megabreba.
5a: Kareharri geruzatu fosiltsua.
5b: Tupa eta kareharri tupa
5c: Maikutz Geruza. Kareharri-megabreba
4. Intrusio magmatikoa. Ofita
3. Buztin nabarra eta igeltsua (Keuper)
2. Arroka silizifikatuak
1. Intrusio magmatikoa. Dolerita

Ikurrak




4.2. DESKRIBAPEN GEOLOGIKOA

4.2.1. TESTUINGURU GEOLOGIKOA

Euskal Kostaldeko Geoparkea eusko-kantauriar arroaren iparraldean dago. Haren garapena erabat lotuta dago Pirinioetako orogenoaren mendebaleko aldearen bilakaera eragin zuten prozesuekin. Lehenbizi, estentsio kontinental gertatu zeneko fase luzean, Iberia Europako kontinentetik bereizteak Bizkaiko golkoa irekitzea eragin baitzuen (Jurasikoa - Goi Kretazeoa), eta gero, prozesuak alderantzikatu eta konpresio-erregimena hasi zenean (Paleogenoa - Neogenoa), Pirinioak eta Euskal Mendiak sortzea eragin baitzuen.

Geoparkean dauden metakin sedimentarioak eta deformaziozko egiturak ikerlan askoren aztergai izan dira, funtsezkoak baitira Pirinioetako mendikatearen mendebaleko aldea nola sortu zen eta zer bilakaera izan zuen ulertzeko.

IBERIAR PENINTSULAREN BILAKAERA PALEOGEOGRAFIKOA, JURASIKOTIK GAUR EGUNERA ARTE



4.2.2. BEREIZGARRI GEOLOGIKOAK

Geoparkeko erregistro estratigrafikoa eta paleontologikoa askotarikoa da, oso, eta hain zuzen ere, horixe du bertako geologiak bereizgarri: Behe Kretazeotik hasi eta Erdi Eozenora bitartean itsas testuinguru sakonetan nahiz sakonera txikikoetan modu jarraituan metatutako arroka sedimentarioak daudela, alegia.

Xehetasun handitan sartu gabe, bi alde nagusi bereiz daitezke:

• **Mendialdea, hego hego-mendebaldean:** Behe Kretazeoko arrezifekareharriz osatutako erliebe handiak ditu bereizgarri.

• **Itsasaldea, ipar ipar-ekialdean:** erliebeak leunagoak dira alde honetan, eta itsaslabarrak dira nagusi; azpian flysch moduko arroak dituzte, ipar-ekialderantz 40° inguru okertuak eta Behe Kretazeotik Erdi Eozenora bitartean sortuak. Ezaugarri litologikoak kontuan hartuz, sekuentzia handi hori bost unitate hauetan bana daiteke: Behe Kretazeoko flysch beltza, Goi Kretazeoko karekizko flyscha, Goi Kretazeoko flysch hareatsua, Paleozenoko karekizko flyscha, eta Eozenoko flysch turbiditikoak.

4.2.3. HISTORIA GEOLOGIKOA ETA ERREGISTRO ESTRATIGRAFIKOA

• Aptiarra – Behe Albiarra (115–110 milioi urte)

Geoparkeko itsas hondoa karbonatozko bi plataforma handi ziren funtsean, tartean sakonera handiagoko kanal batek bereizten zituela.

Plataformetako ur epel eta ez oso sakon haietan bizi ziren organismoek (errudistak, bibalbioak, koralak, belakiak eta foraminifero bentonikoak, nagusiki) itsas hondo hartan kareharri ugari sortzea eragin zuten; esate baterako, gaur egun Andutz mendian ikus ditzakegunak (GiG 2).



Geoparkeko barnealdeko mendiak Aptiar-Albiarreko arrezife-kareharriz osatuta daude.

• Erdi Albiarra (110–105 M.u.)

Sakonera txikiko plataforma haiek arrezife-kareharri ugari sortzen jarraitu zuten, eta haiezez osatuta daude, besteak beste, Arno eta Sesiarte mendiguneak (GiG 27). Plataforma haien inguruan sakonera handiagoko eremuak zeuden, iparraldean eta mendebaldean, eta tupak eta lutitak metatzen ziren han. Iberia kontinentetik bereizten eta Bizkaiko golkoa irekitzen hasi zenean, hasierako mugimendu tektoniko haien eraginez karekizko megabretxa eta olistolisto handiak erori ziren plataformen ertzetik behera, eremu sakonagoe-

tara (GiG 10).

Mugimendu tektoniko haien ondorioz, plataformak zatitzen hasi eta arrakala handiak, kanalak eta arro sakonak sortu zitzaizkien tartean, baita itsaspeko konoak ere, Ondarroakoa bezalakoak. Itsaspeko arroila handi hark (NE-SW norabidekoa) Landetako mendigunetik etorritako sedimentu-jausi itzelak bideratzen zituen, eta horrela sortu ziren, adibidez, Saturrarango konglomeratuak (GiG 3).



Saturrarango konglomeratuak Ondarroarako pasealekuan daude, eta Landetako mendigunetik etorritako itsaspeko sedimentu-jausi itzelen ondorioz sortu ziren.

• Goi Albiarra (105–100 M.u.)

Beste pultsu tektoniko batek itsas maila pixka bat jaitea eragin zuen. Horren ondorioz, plataformak agerian geratu ziren, eta haien karstifikazioa ekarri zuen horrek. Geroago, hondoratzeko orokor handi bat gertatu zen, eta plataformak estalita geratu ziren Ondarroako kanalean behera erortzen ziren sedimentuen pean (GIG 11). Handik aurrera, Geoparkeko historia geologikoa arto sakon batean gertatu zen, oso erliebe irregularrekoa, azpiarroz eta kanalez osatua, eta tarteka aldatuz joaten zena, failetan zer mugimendu tektoniko gertatzen ziren.

Konplexutasun hori guztia dela eta, garai horretako metakinak era askotakoak dira Geoparkean: slump motako metakinak (GIG 7), sedimentu sin-tektonikoak (GIG 5), Debaren arroan ipar-ekialdetik etorritako kono turbiditikoak (GIG 8), leku garaietako metakinak (GIG 4), maila piroklastikoak (GIG 8), bai eta fluido hidrotermalen adierazgarriak ere gune batzuetako nodulu eta septaria ugarietan (GIG 6). Itsas metakin sakon eta askotariko horiek guztiek Geoparkeko Behe Kretazeoko **flysch beltza** deritzona osatzen dute.



Deba inguruko itsaslabarretan daude Behe Kretazeoko flysch beltzaren ebakiduraririk ikusgarrienak.

• Cenomaniarra – Campaniarra (100–75 M.u.)

Bizkaiko golkoa irekitzearekin lotutako jarduera tektonikoa izugarri gutxitu zen, eta itsas maila pixka bat igo zen. Horrek urrundu egin zuen turbiditen ekarpen siliziklastikoa; hain zuzen ere, aurreko etaparen ezaugarri eta flysch beltzaren eragile izan zena.

Barealdi horren ondorioz, itsas hondo sakonean bat-batean gutxitu egin zen sedimentazio-tasa, eta gaur egun Goi Kretazeoko **karekizko flyscha** deritzoguna metatu zen: geruza txandakatutako kareharriak eta tupak dituen segida kondentsatua, alegia. Formazio hori Mendatako puntan eta Sakonetan (GIG 12) ikus daiteke gaur egun.



Geomorfologiaren aldetik ikusgarriak dira Sakonetako itsaslabarrak, eta Goi Kretazeoko karekizko flyscharen ebakidura jarraitu eta benetan deigarri bat dago han agerian, gainera.

• Campaniarra – Behe Maastrichtiarra (75–70 M.u.)

Itsas maila pixka bat jaitsi zen, eta Pirinioetako lehenbiziko erliebe kontinentalek ekialdetik sortzen zuten kono turbiditiko bat hurbiltzea eragin zuen horrek. Horren ondorioz, Goi Kretazeoko **flysch hareatsua** sortu zen (turbidita fin ugari osatua, txandakatuta tupak eta kareharriak dituela), gaur egun Sakoneta eta Andikaraerreka (GIG 13) bitartean ikus daitekeena.



Aginaga formazioa Aitzuriko senadian dago, eta Goi Kretazeoko flysch hareatsu ere baderitzo. Campaniarrekoa baino ez da, baina 1.500 metro inguruko lodiera du, hala ere.

• Erdi Maastrichtiarra – Thanetiarra (70–56 M.u.)

Itsas maila pixka bat igotzeak ekialdetik zetorren kono turbiditiko urruntzea eragin zuen, eta horrek, berriz, Geoparkeo itsas hondoetara ia turbiditarik batere ez iristea. Horren ondorioz, Algorri eta Itzurun inguruko kareharriak eta tupak metatu egin ziren orduko itsas hondo sakon eta lasai hartan, eta horrelaxe geratu ziren erregistratuta hainbat gertaera garrantzitsu, hala nola KT muga (GIG 14 eta 15), PE muga (GIG 19), eta Selandiarreko oinazpiko estratotipoa (GIG 17) eta Thanetiarrekokoa (GIG 18).

Gainera, lasaitasun sedimentario horri esker, Milankovitchen ziklo astronomikoak ere islatuta geratu ziren ziklikotasun estratigrafikoan (GIG 16). Multzo horri guztiari **Zumaiako flyscha** deritzo.



K/Pg muga hain da zientziaren aldetik interes handikoa, eta Algorri inguruko azaleramenduak hain dira estetikoki kalitate handikoak, Geoparkeo ezinbesteko erreferentzietako bat baita leku hau.

• Ypresiarra (56–50 M.u.)

Itsas maila jaitsi egin zen berriro, eta Pirinioetako erliebe kontinentalak jada hurbilago zeuden. Horren ondorioz, ekialdeko itsaspeko konotik turbidita ugari iristen hasi zen, eta haiek, arroaren hondoan metatuz joan zirenez, Eozenoko **flysch turbiditiko** (GIG 20) osatu zuten. Formazio hori ekialderantz dago, Jaizkibel mendiraino.



Geoparkeo GIG garrantzitsuenetako asko Itzurun hondartzan daude, flyscheko ebakidura paleozeno eta eozenoan. Gipuzkoako kostaldeko lekurik bisitatuenetako bat da, gainera; argazki gehien atera zaizkionetako bat.

4.2.4. ERREGISTRO PALEONTOLOGIKOA

Geoparkeo erregistro sedimentario askotarikoan eta estratigrafikoki jarraituan garrantzi handikoa da, halaber, ondare paleontologikoa, hauetaz osatua:

- Behe Kretazeoko errudisten eta koralen bioeraikuntzak (GIG 53).
- Behe Kretazeoko amonoideo bikainak, horietako batzuk maskor ez biribilkatua dutenak (heteromorfoak) (GIG 4). Zumaiako ebakidura, gainera, zefalopodo horien desagertzea aztertzeke mundu-mailako erreferentzietako bat izan da (GIG 14).



Flyscheko geruzak mundu-mailako erreferentzietako bat dira itsas hondo sakonen iknopaleontologian.

- Aztarna fosil apartak, mundu-mailako aditu onenei ere deigarri gertatu zaizkienak (GIG 12 eta 21).
- Karekizko plankton mikroskopikoa, jatorri pelagikoko kareharri eta tupetan bikain iraua dutenak. Mikrofosil horiei esker, xehetasun aparteko azterlanak egin dira Zumaiako flyschean (GIG 15).
- Kuaternarioko ugaztunen aztarna fosilak, Kiputz aztarnategian aurkituak. Kantauriren ertzeko aztarnategi garrantzitsuenetako bat da Kiputzekoa (GIG 52).



Lasturko harrobiko ebakiduretan Albiar garaiko arrezife-kareharriak osatzen dituzten koralen hainbat ebakidura ageri dira, garbi, ikusgarri.

4.2.5. TEKTONIKA

Tektonikaren ikuspegitik, Geoparkeko erregistroa osatzen duten egitura-mota ugariak bikain erakusten dute eusko-kantauriar arroaren egiturazko bilakaera konplexua, kontinentetik bereizita ireki egin zeneko prozesutik hasi (rifting) eta alderantzikatuta konpresio-prozesu betea gertatu bitartekoa, gaur egun ageri diren egituretatik gehienak altzatzea eta sortzea eragin zuena.

Orogenia Alpetarrak N-S norabideko konpresioa eragin zuen, eta haren ondorioz, sekulako egiturak sortu ziren, nagusiki N120°E norabidekoak eta N-ranzko bergentziakoak, hala nola Azpeitiko zamalkadura eta Arnokoa, eta Behe Kretazeoko karekizko mendiguneak flyscharen unitateen gainean geratu ziren. Eskala handiko tolesak ere, hala nola Sesiartekoak (GIG 27), norabide hori bera dute. Bitxikeria modura, aipa dezagun Berriatuko failaren

jarduera zela tarteko (faila hori ere familia berekoa da) igo zirela Triaseko materialak Mutriku inguruan (GIG 1).

Bizkaiko golkoa irekitzeko estentsio-prozesuekin lotutako jarduera tektonikoa erregistratuta geratu da metakin sinsedimentarioetan (GIG 5), sistemitetan (GIG 7) eta N-S norabideko eskala handiko egituretan, hala nola Andutzeko faila (GIG 25), Mutrikukoa eta Tontorramendikoa; faila horiek berrakibatuta egin dira urratze-faila bihurtuta, eta ebaki egin dituzte N120°E norabideko zamalkadurak.

Eskala txikiagoan, zenbait toles benetan ikusgarri daude –Aitzandikoa (GIG 26), adibidez–, bai eta faila-sistema batzuk (GIG 22 eta 24) eta era askotako diaklasak (GIG 23) eta deformazio-egitura ahulak ere.



Aitzandiko toles etzana Geoparkeko egiturarik ikusgarrienetako bat da.

4.2.6. GEOMORFOLOGIA

Ezaugarri geomorfologikoak ere askotarikoak ditu Geoparkeak, eta interes zientifiko nahiz didaktiko handikoak. Paisaiaren modelatua duela 30 milioi urte inguru azaleratutako lehen erliebeekin hasten da, baina gaur egun ikusten ditugun ezaugarriak, oro har, duela askoz gutxiagokoak dira eta funtsean bestelako prozesuen eraginpean daude, hala nola itsasbaterreko prozesuekin, ibaiek eragindakoekin eta jatorri karstikokoekin.

• **Ibai-modelatua:** Geoparkeko bi haran nagusiak Deba eta Urola dira. Geoparkeko haran guztiek V formako profila dute, nabarmen, eta hegal egonkor piko samarrekoak izanda, oso haran ahokatuak sortu dira, oso hedadura txikiko ibai-lautadak dituztenak. Azpimarragarriak dira gaur egungo zenbait meandro bikain (GIG 46). Urak zuzenean itsasora isurtzen dituzten errekaetako (Babestutako Biotopoaren eremuan daude gehienak) bi ezaugarri dituzte: bata, oso motzak direla; eta bestea, azken zatian ur-jauzi txiki bat dutela, itsaslabarraren garaiera-aldea tarteko dela (GIG 41).

• **Itsasbaterreko morfologia:** 13 km-ko kostaldea du Geoparkeak, ia osorik itsaslabar ikusgarri osatua, Deba eta Urola ibaien estuarioek baizik ez baitute eteten kosta-lerro bikaina, eta aipatzekoa da Holozenoan zehar itsas maila igoz joan den heinean sedimentuz betetz joan direla bi estuarioak (GIG 42). Kosta-lerroa itsasbaterreko geomorfologiaren museo natural bat da, eta bertan, itsaslabarretako higadura-prozesuak dira azpimarratzekoak, gaur egun Kantauri itsasoaren ertzeko abrasio-plataforma handienetako bat ari baitira sortzen, gainera (GIG 30 eta 37). Itsas hondoaren kartografia aztertuta, zenbait plataforma ageri dira, maila desberdinetan eta koska txiki banaz bereizita, eta paleoibilgu ahokatuak ere bai, denak ere azken glaziazioko itsas mailaren isla, gaur egungo maila baino 100 metro inguru beherago. Horrez gain, oso eredugarri dira hainbat hondartza, bai hondarrezkoak (GIG 28 eta 32) bai harri-koskorrezkoak (GIG 29), luiziak (GIG 34 eta 35), irristatzeak (GIG 36), haran esekiak (GIG 41) eta higadura-formak (GIG 33, 39 eta 40). Nabarmentzekoa da, azkenik, Santiago hondartzako duna-sistema (GIG 31), Urola ibaiaren bokalean kokatua.



Biotopoko itsaslabarretan higadura-dinamika guztiz aktiboekin lotutako eredu ikusgarriak daude.

• **Modelatu karstikoa:** Geoparkeko barrualdeko paisaia, Behe Kretazeoko arrezife-kareharriz osatua, disoluzio karstikoak eragin du gehienbat. Formazio exokarstiko adierazgarrien artean, aipagarriak dira Geoparkean dauden lapiaz handiak –gehienak estalita (GIG 52)–, polje itxiak –hala nola Olatzekoa eta Lasturkoa (GIG 48 eta 51)–, eta bertako morfologia orokorra, pinakulomotakoa –esaterako, Astigarribiako (GIG 43)–, klima subtropikaletako modelatu tipikoa. Poljeak desorekan daude gaur egun, maila freatikoa jaitsi izanaren ondorioz; horren eraginez, izan ere, barrualdeko errekek ahokutzen ari dira, eta dolinak ari dira sortzen, hala nola Lasturkoak (GIG 56). Ikuspegi endokarstikotik, aipatzekoa da Geoparkean inbentariatu diren kobazulo ugariak, 329 kobazulo guztira, horietako batzuk garapen handikoak, hala nola Aixako koba (GIG 60) edo Pagatzako sala handia (GIG 54). Kobazuloak egotea oso da interesgarria, informazio sedimentologikoa ematen dutelako, batetik, eta bestetik, kobazuloetako batzuetan Goi Paleolitoan gizakia bizi izan zelako eta mundu-mailako garrantzia duten arkeologia-aztarnategiak daudelako, hala nola Ekaingoa eta Praileaitzekoa (GIG 50). Azpimarratzekoak dira ere Kiputz bezalako aztarnategi paleontologikoak (GIG 47).



Zenbait dolina lerrokatu, Lasturko poljean.

4.2.7. HIDROGEOLOGIA

Geoparkearen mugen barruan 260 iturburu inguru daude, emariaren aldetik era askotakoak, eta horietatik % 25 baizik ez dira azaleko uren bilketak. Horrek agerian jartzen du zein garrantzitsua den lurpeko ura, eremu honetan balio handiko baliabidea den aldetik.

Arno eta Astigarribia bitartean dauden kareharri urgondarretan iragazten den ur guztitik gehienak hego-ekialderantz egiten du gero bidea, Deba ibaiaren ibilguarekin topo egin arte. Ur hori ibaiaren ezkeraldeko ertzean dauden zenbait iturburutan zehar isurtzen da; azpimarragarriena, Leiartekoa (Astigarribia, Deba), batez beste 15 l/s-ko emaria duena. Ur guztitik zati bat, gutxi, iparralderantz joaten da, Mendibeltzburu aldera, eta bi iturburutan isurtzen da, Mutrikun: Ondabaroko iturburuan (4 l/s) eta Atxukarrokoan (5 l/s).

Izarrait mendigunean iragazten den ura, gehiena, mendebalderantz joaten da, eta Deba ibaiaren eskuinaldeko ertzean dauden iturburu batzuetan zehar isurtzen da gero, denak ere emari handikoak; adibidez, Sasiolako iturburua (60 l/s), Lasturko sarbegiarekin lotuta dagoena (GIG 47).

Andutzeko erliebe menditsuak (Itziarren ekialdean) azpiunitate txiki bat dira, 2,5 km² ingurukoak, eta han, lurpeko urak iparralderantz joaten dira, eta Itziarko (Deba) bi iturburu hauetan isurtzen: Azti (15 l/s) eta Usarroa (50 l/s).

Geoparkeko bitxikeria hidrogeologikoen artean, azpimarragarriak dira Larangako iturburu burdintsuak (Mutriku) eta Urberuagako iturri termala.

4.2.8. ERAUZKETA

Geoparkearen mugen barruan, Behe Kretazeoko arrezife-kareharriak erauzi izan dira, batik bat, eta bertan dauden harrobi txiki ugariak dira horren lekuko, gaur egun gehienak utzita baldin badaude ere: Sakonberri, Urberuaga, Irure, Istiña, Sasiola, Goitzibar, San Nikolas, Lastur eta Olatz, adibidez. Bi harrobi garrantzitsuk irauten dute jardunean: bata, Sasiolako auzoan, eta bestea, Lasturren (GIG 53). Azken harrobi hori harri apaingarria erauzteko ustiatu izan da, eta merezi du hari aparteko arreta eskaintzeak. Izan ere, Lasturko harrobian erauzitako blokeak erabiliz eginak dira Gipuzkoako eraikin eta plaza enblematikoenetako asko, hala nola Arantzazuko santutegia. Herri-kiroletan ere estimu handitan eduki izan dute harrobi horretako harria, eta Euskal Herriko frontoi gehienetan jarri izan da.

Bitxikeria modura, aipatzekoak dira, halaber, Olatz auzoko burdin-filoien ustiategiak, bai eta Arronamendi inguruan (Deba) flysch beltzeko geruzak ustiatuz galtzada-harriak egiteko industria ere.

Hori guztia kontuan izanda, ezagun da hargintza garrantzi handikoa izan dela Geoparkeko ekonomian eta tradizioetan.



Lasturko harrobi ikusgarriaren frontea.

GEOLOGIA- INTERESGUNEEN INBENTARIOA

05

GEOLOGIA INTERESGUNEEN ZERRENDA (GIG)

ESTRATIGRAFIA ETA PALEONTOLOGIA

- 01 Mutrikuko buztin eta ofitak triasikoak
- 02 Andutzeko karbonatozko plataforma
- 03 Saturrarango konglomeratuak
- 04 Mutrikuko ammonite erraldoiak
- 05 Mutrikuko metakin sintektonikoak
- 06 Debako septariak
- 07 Ondarbeltz mega geruza
- 08 Aitzandiko flysch beltza
- 09 Kakuta formazioko eskistositatea Sasiolan
- 10 Debako kareharri megabretxa
- 11 Istiñako paleokarsta
- 12 Sakonetako karekizko flyscha
- 13 Arantzako portuko flysch hareatsua
- 14 Zumaiako flysch Maatrichtiarra
- 15 Algorriko Kretazeo Paleogeno muga
- 16 Zumaiako ziklikotasun estratigrafikoa
- 17 Selandiar estaiaren estratotipoa
- 18 Thanetiar estaiaren estratotipoa
- 19 Itzurungo Paleozeno Eozeno muga
- 20 Itzuruntxikiko flysch eozenoa
- 21 Itzuruntxikiko iknofosilak

TEKTONIKA

- 22 San Telmoko duplexa
- 23 Aizbeltzeko diaklasak
- 24 Mendatako puntako faila sistema
- 25 Andutzeko faila
- 26 Aitzandi puntako toles etzana
- 27 Sesiarteko antiklinala

ITSASERTZEKO GEOMORFOLOGIA

- 28 Itzurun hondartza
- 29 Pikoazpia harri-koskorreko hondartza
- 30 Sakonetako multzo geomorfologikoa
- 31 Santiagoko dunak eta padura
- 32 Saturrarán hondartza
- 33 Itzuruntxikiko higadura-formak
- 34 Marianton puntako bloke eroriak
- 35 Pikoteko luiziak
- 36 Baratzazarretako hegal-irristatzea
- 37 Algorri-Portutxiko marearteko zabalgunea
- 38 Txertudiko gabarlekuko itsaslabarrak
- 39 Itzurun hondartzako kobazuloak
- 40 Aitzuri lurmuturreko kobazuloak
- 41 Mendatako bailara zintzilikatua
- 42 Debaren estuarioa



KARST

- 43 Astigarribiako pinakulu-motako karsta
- 44 Ermitiako koba
- 45 Praileaitz koba
- 46 Sasiolako meandrea
- 47 Kiputz aztarnategi kuartenarioa
- 48 Olazko poljea
- 49 Kobaldeko sarbegia
- 50 Kobetako sima
- 51 Lasturko poljea
- 52 Arbil mendiko lapiaz estalia
- 53 Sesiarteko lapiaz gorria
- 54 Pagatzako sala handia
- 55 Ugarteberriko erreka ahokatua
- 56 Lasturreko dolina lerrokatuak
- 57 Ugarteberriko koba
- 58 Andutz mendiko dolinak
- 59 Sasiolako iturburua
- 60 Aixako koba
- 61 Salbatoreko pinakulu karstikoa
- 62 Usarroako iturburua
- 63 Deba ibaiako paleoterraza

HARROBIAK

- 64 Lasturko harrobia
- 65 San Blasko harrobia

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAREN GEOLOGIA INTERESGUNEEN KOKAPENA





ESTRATIGRAFIA ETA PALEONTOLOGIA

GIG 01

MUTRIKUKO BUZTIN ETA OFITA TRIASIKOAK

BALIO INTRINTSEKOA: **2,25**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **1,88**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Mutrikutik Ondarroarako bidean, N-634 errepidean dagoen ezpondan, Geoparkeko arrokarik zaharrenak ikus daitezke. Buztin nabar eta igeltsu zuri triasikoen azaleramendu bat da, gorputz hektometrikoak osatzen dituzten arroka azpibolkanikoak (ofitak eta diabasak) barne hartzen dituena. Mutriku inguruan, arroka horiek Berriatuko failan zehar egin zuten gora, eta beraz, arroka horien eta ondokoaren arteko kontaktua mekanikoa da.

Aipatutako arrokkak Triasikoan eratu ziren, klima lehor eta epeleko ingurune kontinental batean; eta klima hori, hain zuzen, lagungarria izan zen ebaporitak osatzeko. Pangearen banaketak, berriz, zartadurak eragin zituen, eta arroka magmatiko azpibolkanikoak zartadura horietan intruitu ziren.

Kretazeoan, Tertiarioan eta Orogenia Alpetarrean, arroka horiek, sakon-sakonean zeudenez, gaineko sedimentuen karga handia jasan behar zuten (Jurasiko, Kretazeo eta Tertiarioko sedimentue-na), baina dentsitate txikikoak izaki, pitzaduretan sartuz joan ziren, Berriatuko faila aktiboan, esaterako, eta hala, gora egin zuten, arroka kretazeoen goiko mailetan geratu arte (hortxe daude gaur egun ere).

NOLA BERTARATU

Azaleramendua Mutrikutik Ondarroarako bidean dago, N-634 errepidean, Olatzerako bidegurutzetik gertu.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Mutrikuko azaleramendu triasikoaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 549221 m / Y= 4795042 m / Alt.= 63 m



Ofiten zartaduretan aurkitutako epidota-kristalak, gertutik ikusita.

GIG 01 BALORAZIOA

BALIO INTRINTEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	2
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	2
Batez besteko balioa	2,25

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Gaur egun ez dago lekua interpretatzeko materialik. GIGA oso ikusgarria ez denez eta bertan egotea nahiko arriskutsua denez, ez da GIG egokia herritarrentzat oro har.
- GIG hau adituentzat da interesgarria.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	2
Balio estetikoa	1
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	1
Zenbateraino ikusten den garbi	2
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	1
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	2
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	1,88

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	3
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	2

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Ez dago berriaz babestuta.
- Azaleramendua ez da oso ona, baina hala ere, Geoparkean arroka horiek ikusteko aukera bakanetako bat denez, kontserbatzeko neurriak hartzea komeni da. Halaber, egokia litzateke Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea.

GIG 02

ANDUTZEKO KARBONATOZKO PLATAFORMA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,38**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Andutz mendia Geoparkeko erlieberik garrantzitsuenetako bat da. N-S norabideko mendi luzanga bat da, eta 612 m-ko altitueda du, itsasertetik 3 kilometro eskasera egon arren.

Erliebe garrantzitsu hau Kakueta formazioko kareharri azpibertikal gogor-gogorrez osatuta dago. Kareharri horiek itxura masiboa dute, oso mikritikoak dira, eta era askotako hainbat arrezife-fosil dituzte; adibidez, koral kolonialak, koral masiboak, koral adarkatuak, errudistak, ostreidoak, beste bibalbio batzuk eta belakiak. Mikroskopioan, hainbat orbitolina eta miliolido ere hauteman daitezke. Kareharriak mendebalderantz okertuta daude, 70° inguru, eta mendebaldeko aldean, tupatsuagoak dira.

Andutz mendiko kareharriak Geoparkeko Aptiarreko arrezife-kareharriak esanguratsuenak dira. Sakonera txikiko karbonatozko plataforma tropikal batean eratu ziren. Izan ere, haietan ageri diren fosilak zona fotikokoak dira, eta zona hori 20 metroko sakonera baino sakonera txikiagoan egon ohi da, ur garbi eta zeharrargietan. Hegoalderantz, garbi ikusten da fazies aldatu egiten dela, eta litologia tupatsuagoak hautematen dira; horrek adierazten du sakonera handiagoa izango zela hor, eta beraz, organismo eraikitzaileek ez zituztela hain baldintza mesedegarriak izango.

Behe Kretazeoko arrezife-kareharriak gogor-gogorak izan ohi dira, eta Geoparkeko erlieberik garrantzitsuenak, hain zuzen, kareharri horiez osatuta daude.

NOLA BERTARATU

Andutz mendiko kareharriak ikusteko, gailur aldera igo behar da Itziartik edo Murgizar baserritik.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Itziar. Mendia Zumaia inguruko edozein sektoretatik ikus daiteke.

– Geoparkeko Itxaspe.



Andutz mendiaren ikuspegi orokorra, Elorriaga aldetik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555138 m / Y= 4790675 m / Alt.= 595 m



Arrezife-kareharriak Andutz mendiaren gailurrean.

GIG 02 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa		●		
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa		●		
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena	●	Jardunean
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	2
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	2,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- *Flysch biotopoa* gidaliburuan GIG honekin loturiko informazio pixka bat dator.
- Andutz mendia Itziartik interpreta daiteke, baina egokia litzateke ibilbide tematiko bat prestatzea gailur aldera igotzeko; Geoparkearen ekialdeko zatiaren ikuspegi ederra dago handik.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	1
Azpiegiturak eta zerbitzuak	1
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	2,38

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	2

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Ez dago berriaz babestuta.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 03

SATURRARANGO KONGLOMERATUAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,5**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,13**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Saturrarango konglomeratuak Ondarroa formazioko elementu garrantzitsuak dira. Formazio hori konglomeratu silizeoz, hareharriz eta lutita grisez osatuta dago, eta horiek ia bertikalki azaleratuta daude Saturraranen, tamaina metrikoko estratutan. Arroka horiek 7 kilometro inguruko zabalerako arroila handi baten barruko zenbait higadura-kanal turbiditikoren betekina osatzen dute; arroila horrek Erdi Albiarrean funtzionatu zuen, eta sedimentu asko eta asko eraman zituen ipar-ekialdeko plataformetik ipar-mendebaldeko itsaso sakonetarantz.

Saturrarango azaleramendua, zehazki, 25 metro inguruko sakonerako higadura-kanal bati dagokio; aipatu beharrekoa da kanal horretan sekuentzia dekametrikokoak metatu zirela, eta pikorren lodiera eta tamaina gero eta txikiagoak direla segidan gora egin ahala. Horrek erakusten du kanalik handienak beste kanal txikiago batzuek zeharkatzen zituztela. Harri-koskorak jatorria Landetako mendigune kontinentalean (NE) duten arroka karboniferoz, triasikoz eta kretazeoz osatuta daude, eta hori bat dator estratuen oinarrian aurkitu diren eta hego-mendebalderanzko mugimenduak erakusten dituzten ur-lasterren markekin.

Arroilan zehar itsaso sakonerantz erortzen ziren ur-laster handi eta indartsuek higatu zituzten kanalak (50 m-ko sakonerakoak ere badira), eta gero, beste lur-jausi batzuen edo uhertasun-lasterren eraginez eroritako sedimentu lodiz bete ziren; hala, lasterrek energia galdu zuten pixkanaka, kanalak bete ahala.

NOLA BERTARATU

Azaleramendua Ondarroa eta Saturrarango arteko oinezkoentzako itsas pasealekuan dago. Hara Saturrarango hondartzako aparkalekutik joan behar da. Azaleramendua pasealekuaren hasierako zubitik 80 metrora dago, gutxi gorabehera.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.

Saturrarango konglomeratuen azaleramenduen ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
X= 547661 m / Y= 4796600 m / Alt.= 9m



Ortokonglomeratuko harri-koskorak, gertutik ikusita.

GIG 03 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 4				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena		Jardunean
Interes kulturala: GIG honetatik Ondarroako arrantza-portua ikusten da, EAEko arrantza-porturik garrantzitsuenetako bat.				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	2
Batez besteko balioa	3,5

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Zerbitzu guztiak daude inguruan. Erraza da GIG honetara iristea, eta aukera didaktiko handiak ditu adi-tuentzat.
- Ez dago lekua interpretatzeko inolako materialik. Egokia litzateke GIG hau Saturraran interpretatzeko ibilbidean sartzea eta interpretazio-taula bat jartzea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	2
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,13

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeeii buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 04

MUTRIKUKO AMONITE ERRALDOIAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,5**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,57**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Kardal formazioa Zazpi Hondartzak izeneko eremuan azaleratzen da, Mutrikuren eta Saturrarango hondartzaren artean. Kostaldeko zati honetako karekizko lutita ilunetan hainbat amonite daude, oso deigarriak gainera, handiak eta astunak direlako eta deformatu gabe daudelako. Ale gehienak sideritazko geruzetan edo konkrezioetan daude.

Molusku zefalopodo horien maskorrak pixka bat altxatutako itsas hondo sakon batera erortzen ziren; uhertasun-lasterren eraginpean ez zegoen hondora, hain zuzen ere. Maskorrak sedimentu finean eta baldintza anoxikoetan lurperatuta zeudenean, siderita primarioa hauspeatu zen haien gainean, sedimentuen beraien materia organikoaren deskonposizioaren ondorioz. Hori dela-eta, maskorrak izugarri gogortu ziren, eta horri esker, ez ziren deformatu gerora zapalduak izan zirenean. Badira sutura konplexuak eta oso ikusgarriak dituzten zati solte batzuk.

Narvaez senar-emazteek hainbat amonite erraldoi ikusgarri jaso dituzte 30 bat urtean, eta orain, Mutrikuko Nautilus museoan daude ikusgai amonite horiek. Gaur egun, erabat debekatuta dago geoparkean fosilak hartzea.

Geoparkeak bultzatutako ikerketa batek erakusten du amoniteen tamaina bizakaiko golkoaren irekieran sortu ziren itsas azpiko emari hidrotermalekin lotuta egon daitekeela.

NOLA BERTARATU

Zazpi Hondartzetako itsaslabarrera Saturrarango hondartzatik edo Mutrikuko portutik joan daiteke. Baina kontuan izan behar da inguru hori oso arriskutsua dela eta ura behe samarrean dagoenean bakarrik joan daitekeela bertara. Bestalde, Nautilus museoa Mutrikuko herrigunean dago.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Saturrarango hondartzatik Zapi Hondartzaren ikuspegi ederra dago, baina fosilak ez dira erraz ikusten. Amoniteak ikusteko aukerarik onena Nautilus museora joatea da.



Amonite erraldoiak jaso diren "Zazpi hondartzak" labarretako ingurua.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 549166 m / Y= 4796385 m / Alt.= 0 m



Mutrikuko amonite erraldoia.

GIG 04 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				●
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 4				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	●	Jardunean
Interes kulturala: Museoa Mutrikuko gune historikotik gertu dago.				
Oharrak: Amoniteak Nautilus museoan daude ikusgai.				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,5

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Zazpi Hondartzen eremua marearteko zabalgunek bat da, eta ez dago erabilera publikorako prestatuta. Museoak zerbitzu guztiak ditu.
- Museoak baditu zenbait argibide, eta *Nautilus eta Mutrikuko flysch beltza* izeneko bildumari buruzko gidaliburu bat argitaratu dute. Museoa txiki samarra da. Egokia litzateke amoniteei buruzko museo handiagoa egitea konbentu berriko turismo bulegoarekin batera.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	4
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	x
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	3,57

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	2	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	2
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	3

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.
- Bilduma guztia leku bakar batean bateratu.

GIG 05

MUTRIKUKO SEDIMENTU SINTEKTONIKOAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **1,88**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sekzioak 50 metroko lodiera du, eta beheko unitateetako harri-koskorrez osatutako bretxa polimiktiko batez eratuta dago nagusiki. Formazio konplexu eta berezi hau Goi Albiarrean Mutriku inguruan izandako sedimentazio sintektonikoaren eraginez sortu zen, eta gero, Deba formazioko gainaldeko hareharri-turbiditek fosildu zuten.

Formazioaren barruan, angelu handiko bi etenune angeluar daude, eta haiek nahiz klasto bretxoi-deek eta egitura tektonikoek garbi adierazten dute Mutriku inguruko geruzak hego-ekialderantz okertu zirela Goi Albiarrean, eta urpeko sinklinal bat eragin zutela (Aitzetako sinklinala), Mutriku-ko failaren jarduerari erantzunez (failak ipar-mendebaldetik altxatu zituen geruzak). Geruzak altxatu ahala, ezegonkortu eta zatitan hautsi ziren; zatiak maldan behera erori ziren sinklinalaren nukleorantz, eta han, maila estratigrafiko modernoagoetan birsedimentatu ziren.

GIG hau oso garrantzitsua da mundu-mailan, eta adituak hura aztertzen ari dira oraindik ere. Oso be-zeria delako nabarmentzen da, batik bat.

NOLA BERTARATU

Alkolea lurmuturrera iristeko, izen bereko hondartzatik itsaslabarrean zehar oinez joan behar da; hondartzara joateko, berriz, Deba eta Mutriku artean bidexka bat abiatzen da N-634 errepidetik.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo itsasotik.



Buztin albiarretan bildutako bloke handia; blokeak etenuneak ditu.

**EZ DAGO KOKALEKU
ZEHATZA EMATERIK,
ESPOLIAZIOA GERTATZEKO
ARRISKUA DAGOELAKO.**



Sedimentazio sintektonikoaren ondorioz sortutako bretxa polimiktiko eta desordenatua, gertutik ikusita.

GIG 05 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa			●	
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				●
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 4				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena		Jardunean
Interes kulturala: GIG honetatik Mutrikuko arrantza-portua ikusten da.				
Oharrak: la adibide bakarra da mundu osoan.				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

• GIG hau ez da baliabide geoturistiko interesgarria, oso konplexua delako, eta zaila bertara iristea. Zientziaren ikuspegitik, aldez, ia adibide bakarra da mundu osoan, eta EHUKo zenbait zientzialari hura aztertzen ari dira oraindik ere. Horregatik, EZIN DIRA BISITAK SUSTATU, EZTA HAREN GARRANTZIA NABAR-MENDU ERE. Ezaugarriren bat galduz edo aldatuz gero, porrot egin dezakete martxan dauden ikerketek.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	1
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	2
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	1
Azpiegiturak eta zerbitzuak	1
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	1,88

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	2
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- EAEko GIGen inbentarioan sartzeko aukeratua izan da.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.
- GIG honek interes zientifikoa baino ez du, eta beraz, Geokontserbaziorako estrategiarik onena HURA INOLAZ ERE EZ AIPATZEA ETA BISITAK EZ SUSTATZEA da.

GIG 06

DEBAKO SEPTARIAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,71**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lapari hondartzaren ekialdean, nodulu berezi-bereziz osaturiko filoi bat dago; Debako septariak ize-nekoez osaturikoa, hain zuzen ere. Filoiak 15 m inguruko potentzia izango du seguruenik, baina faila txiki batzuek zeharkatu arren, ezin da begi hutsez hauteman, ez baita Debako hondartzako flysch beltzeko formazio tupatsuaren gainerako zatitik bereizten.

Septaria esaten zaie kanpo-morfologia esferikoa edo obalatuia duten noduluei. Badira metro-erditik gorako diametroko ale bakan batzuk, baina Debako septariak 5 cm-tik 25 cm-ra bitarteko ardatz luzea dute, oro har.

Kanpoko itxurak ez du inolaz ere aditzera ematen oso-oso modu berezian zartatuta daudela barrutik. Septariak aktibitate mikrobianoarekin erlazionatuta daude. Erreakzio biokimiko hauek sideritaren auspeaketa eragiten dute hasierako noduloak sortzeko. Gogortzen den einan bolumena galtzen du eta noduloa barrutik pitzatu egiten da. Pitzadura hauek kaltzitat batetzen dira bereziki, baina baita ere barritina eta piritaz. Kaltzitzen kolore txuriak eta noduloaren beltzak sortzen duten kontrastea da Debako septareen bereizgarri nagusia.

Gaur egun Geoparkeak Septaria bilduma bat osatzen dihardu.

NOLA BERTARATU

Filoiak Debako Lapari hondartzan dago.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Azalaramenduan ezin da ezer ikusi. Gaur egun, zenbait septaria ikusgai daude Zumaiaiko Algorri Interpretazio Zentroan eta Debako turismo bulegoan.



Debako septaria baten barruko zartadura.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 552902 m / Y= 4794203 m / Alt.= 12 m



Septaria batek itsaslabarraren horman utzitako negatiboa.

GIG 06 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				●
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena	●	Jardunean ●
Interes kulturala: Algorri Zentroko eraikina oso interesgarria da, arkitektura eta estilo modernista direla-eta.				
Oharrak: Oso ale bereziak dira, eta horregatik-edo, espoliazio handia gertatu da GIG honetan.				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Jende asko ibiltzen da hondartza inguru horretan, baina filoa ezin da begi hutsez hauteman, eta gainera, ia ez dago septariarik bertan. GIGa *Lapari* ibilbidean sartuta dago. GIGari buruzko informazioa ere badakarte bai *Flysch biotopoa* gidaliburuak (IP L3) bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuak.
- Aukera ederra izango litzateke bertako eta munduko beste septariekin bilduma bat osatzea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	2
Balio estetikoa	4
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	x
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,71

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	2
Degradatzeko arriskua:	
Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	4
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	
Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	3
Espoliazioa gertatzeko arriskua	4

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Bereziakoa da. Debebatuta dago septariak hartzea Organo Kudeatzailearen baimenik gabe. EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago. Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartu beharko litzateke, espoliazioa arautzeko; halaber, filoa sare batez estaltzea komeni da.

GIG 07

ONDARBELTZ MEGAGERUZA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lapari hondartzako itsaslabarraren zatirik handienean, arroka-zati ilunez osaturiko multzo desordenatu bat dago. Megageruza horrek 12 metrotik 20 metrora bitarteko lodiera du, eta 3 kilometrotik gorako luzera, eta hareharrizko eta lutitazko blokez osatuta dago; bloke handiak dira (badira 3 m-koak ere), eta desordenatuta daude, gorantz gero eta oparoagoa den lutitazko matrize baten barruan. Halaber, higadura-oinazpia nahiko garbi hautematen da, eta pikor-mailaketa positibo da. Klasto asko tolestuta daude, 180°-tik gorako tolesak ere izanik.

Metakin hori dentsitate handiko grabitazio-irristatzea dela esan daiteke, higakin-kolada motakoa: arroaren hondoan jada metatutako materialak ezegonkortu eta ezpondan behera irristatzen dira. Erortzean, kontsolidatu gabeko materialak ordenarik gabe tolesten dira, eta material zurrungoak, berriz, zartatu eta hondarrezko dike txikiz betetzen dira. Material lodiena metatutakoan, lutitarik fine-nak unitatearen gainaldean sedimentatzen dira, grabitatearen ondoriozko dekantazioz.

Ezaugarri sedimentarioei erreparatuta, metakin hau *seismita* bat dela esan daiteke, lurrikara handi batean izan baitezake jatorria.

NOLA BERTARATU

Debako Lapari hondartzara jaitsi behar da, eskaileretatik.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Lapariko Ondarbeltz megageruzaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 552826 m / Y= 4794192 m / Alt.= 8 m



Megageruzako noduluak eta tolestutako klasto bat, gertutik ikusita.

GIG 07 BALORAZIOA

BALIO INTRINTEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	2
Batez besteko balioa	3

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Zerbitzu guztiak daude inguruan.
- GIG hau *Flysch biotopoa* gidaliburuan sartuta dago, *Lapari* ibilbidearen barruan (L4).
- Gaia zaila da herritarrentzat oro har. GIGak aukera didaktiko handiak ditu adituentzat.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	2
Balio estetikoa	1
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	2
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Debebatuta dago laginak hartzea Organo Kudeatzailearen baimenik gabe.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeko komeni da.

GIG 08

AITZANDIKO FLYSCH BELTZA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,25**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Aitzandi puntan, flysch beltzaren Deba formazioko ebakidura adierazgarri bat ikus daiteke. Sekuentzia hori lutita grisez, hareharriz eta siderita gorrixkazko geruzez osatuta dago. 25 metro besterik ez dituen zati batean hauteman daitezkeen berezitasunak direla-eta, lekua interes handiko multzo estratigrafikoa dela esan daiteke.

Sideritazko noduluak 15-50 cm bitartekoak dira, gorrixkak, biribilduak eta, eskuarki, luzangak eta estratifikazioarekiko subparaleloak. Zenbait maila turbiditikoren oinarrian, ur-lasterraren marken adibide bikainak ere badaude, *groove* motakoak eta 0,5 m inguruko lodierakoak. Azalaramenduaren mendebaldean, halaber, hondakin begetal fosilak bereizten dira: ibaiek plataformaraino eraman zituzten hondakinak, eta gero, turbidita batek plataformatik itsas hondoraino arrastatu zituenenez, itsas hondo sakon batean metatu eta fosildu ziren.

Flysch beltzaren tarte honen berezitasunik esanguratsuena jatorri piroklastikoko geruza mehe argi-argi batzuk dira. Badirudi geruza horiek tefra-motako dekantazio baten bidez eratu zirela, seguruenik Bizkaiko sinklinorion (Geoparketik hegoaldera) izandako leherketa magmatiko edo freatomagmatiko baten ondorioz.

NOLA BERTARATU

Sorginetxera joateko bidexka hartu eta marearteko zabalguneraino jaitsi behar da. Gero, punta aldera joan behar da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Lapariko hondartzako flysch beltzeko azalaramenduak.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 553159 m / Y= 4794650 m / Alt.= 2 m



Geruza piroklastiko mehe eta zuria lutita gris eta turbidita ha-reatsuen artean.

GIG 08 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa			●	
Petrologikoa			●	
Mineral-hobiak			●	
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuak GIGari buruzko informazio pixka bat ematen du.
- Flysch beltzera bisita gidatuak sustatu.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	1
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	1
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	2,25

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	3

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Debekatuta dago laginak hartzea Organismo Kudeatzailearen baimenik gabe.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeari komentatu da.

GIG 09

KAKUETA FORMAZIOKO ESKISTOSITATEA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,25**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **1,75**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Astigarribirako bidegurutzeko ezpondan, Kakueta formazioko eskistositatea garbi hautematen da: eskistositate alpetar handia da, eta horrenbestez, estratifikazioa nekez bereizten da. Azalaramendua tupetz osatuta dago nagusiki (% 90), baina kalkareniten eta bretxen tartekatze lodi batzuk ere badaude. Kalkarenitak tabularrak dira, higadura-oinazpia dute, barrualdea desordenatuta, eta oro har, Bouma sekuentziak dituzte. Karekizko bretxak kareharri urgondarrezko harri-koskorrez osatuta daude (5 metroko diametrokoak ere badira), matrize tupatsu batean bilduta.

Sedimentu horiek karbonatozko plataformako kanal baten barruko ezpondan metatu ziren. Sedimentazioa lasaia izan zen, oro har, baina aldatu egiten zen askotan, energia handia etortzen zelako karbonatozko plataforma urgondarretatik. Turbiditek kalkarenitak sorraraziko zituzten, seguruenik, eta higakin-koladek, berriz, bretxak.

Azalaramendu osoan, eskistositate alpetar handia da nagusi (230°/62°), eta horrek estratifikazioa ezkututzen du. Argi eta garbi bereizten da eskistositateak eragin handiagoa duela tupetan (material bigunagoa da) kalkarenitetan edo bretxetan baino (material gogorra).

NOLA BERTARATU

Azalaramendua N-634 errepidean dago, Astigarribirako bidegurutzearen ondoan. Autoa zubiaren beste aldean aparkatu behar da. Ez dago bazterbiderik, eta gainera, zirkulazio handia egoten da. Beraz, oso leku arriskutsua da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo zubiaz bestaldeko aparkalekua.



Errepide-bazterreko azalaramenduaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 550860 m / Y= 4790904 m / Alt.= 18 m



Eskistositatearen eragina tupetan eta kalkarenitazko geruza batean.

GIG 09 BALORAZIOA

BALIO INTRINTESEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa		●		
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa		●		
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena		Jardunean
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	1
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	3
Batez besteko balioa	2,25

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Gaur egun ez dago GIG honi buruzko inolako material didaktikorik.
- Oso arrisksua da leku honetara iristea eta bertan egotea. GIG hau adituentzat baino ez da interesgarria.
- Ez du merezi azaloramendua egokitzea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	2
Balio estetikoa	1
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	1
Zenbateraino ikusten den garbi	2
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	1
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	1,75

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrinsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Gaur egun ez dago legez inolaz ere babestuta. Azaloramendua sare metaliko batez estalita dago.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 10

DEBAKO MEGABRETXA

BALIO INTRINTSEKOA: 2

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Herriaren hegoaldean, 60 metrotik gorako muino handi samarra dago. Megabretxa bat da, 25 metrotik beherako zenbait olistolitoz nahiz izaera desberdineko bloke soltez osatua. Blokeak lutitazko matrize batean bilduta daude, erabat desordenatuta, eta gehienak kareharri urgondarrezkoak eta lutitazkoak dira.

Megabretxa honen sedimentazioa energia eta dentsitate handiko grabitazio-mekanismo batekin dago lotuta, seguruenik: sakonera txikiko eremuetatik ezpandan behera irristatu zen (arrezife-kareharriak ari ziren eratzen plataformako eremu horietan), arto sakonaren hondoan metatu arte; flysch beltza eratzen ari zen lekuan metatu arte, alegia. Badira, halaber, periodo bereko beste grabitazio-metakin batzuk, eta horregatik, badirudi lurrikara batekin edo gehiagorekin lotuta daudela horiek guztiak; lurrikarek itsas hondoak ezegonkortuko zituzten, eta eskala handiko grabitazio-luizi horiek eragin.

NOLA BERTARATU

Azaleramendua Deban dago, herrian bertan; Agirre jauregitik hegoalderantz jo behar da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Azaleramenduaren ikuspegi orokorra: etxe artean dago, eta oso hondatuta.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 552263 m / Y= 4793394 m / Alt.= 22 m



Ezpandan beherako desplazamenduaren ondorioz tolestutako lutitazko bloke bat, gertutik ikusita.

GIG 10 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala				
Oharrak: GIG hau erabat hondatuta dago.				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	2
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	1
Batez besteko balioa	2

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Gaur egun ez dago GIG honi buruzko inolako material didaktikorik.
- Azalaramendua oso-oso hondatuta egon arren, GIGaren interpretazioa interesgarria izan daiteke herri-tarrentzat oro har. Hala ere, adituentzako bisitak baino ez lirateke antolatuta beharko.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	1
Balio estetikoa	1
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	1
Zenbateraino ikusten den garbi	1
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	2
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	2

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	2
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	4
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Gaur egun ez dago legez inolaz ere babestuta.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da. Azalaramendua oso hondatuta egon arren, errespetatu egin behar da ezinbestez.

GIG 11

ISTIÑAKO PALEOKARSTA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **2**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Istiñako harrobi abandonatuaren goiko aldean, azalatu egiten da Erlo formazioaren eta Altzola formazioaren arteko higadura-kontaktua. Esan beharra dago Erlo formazioa kareharri mikritikoz osatuta dagoelako, eta Altzola formazioa, berriz, hareharri turbiditiko. Kareharriek, gainaldean, oso higadura-gainazal irregularra dute: horma bertikaletako hutsune handiak daude, eta hutsune horiek goiko formazioan jarraitzen duten hareharri turbiditikoaren geruzek bete dituzte. Betetako hutsunerik handienak 11 metroko zabalera eta 8 metroko sakonera ditu, eta argi eta garbi bereizten da harrobiaren behealdetik.

Dirudenez, higadura-kontaktu hori paleokarst bat da: Erlo formazioko kareharriak, sakonera txikiko itsas plataforma batean eratutakoak, itsas mailaren jaitiera erlatibo baten ondoren agerian gelditu zirenean osatuko zen. Orduan, kareharriek disoluzio-prozesuak jasan zituzten, eta horrenbestez, morfologia irregularra eratu zen: morfologia karstiko tipikoa. Geroago, kausa tektonikoak zirela-eta, kareharriak arto sakoneraino hondoratu ziren, eta han, Altzola formazioko turbiditek estali zituzten; turbidita horiek, halaber, higadura karstikoak azalean utzitako hutsuneak bete zituzten pixkanaka.

Azaleramendua oso inguru hondatuan eta harrobi baten gainaldean egon arren, aukera paregabea eskaintzen du Geoparkeko Behe Kretazeoko unitate tekto-sedimentarioak zein konplexuak diren ikusteko.

NOLA BERTARATU

Debako hegoaldeko sarrera inguruan, N-634 errepidean, San Martin Ermitatik Istiñako harrobi abandonatura joateko bidea hartu behar da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Harrobiaren behealdea. Lekua gertuagotik ikusteko, harrobiko bertako malkarretan gora egin daiteke pixka bat.



Higadura-gainazala Istiñako harrobiaren goiko aldean dago.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 551934 m / Y=4792304 m / Alt.= 148 m



Paleokarsteko hutsunerik handienetako baten betekin turbiditikoak, gertutik ikusita.

GIG 11 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak	●			
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	●	Izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala				
Oharrak: Harrobia eta ingurua abandonatuta daude.				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	3
Batez besteko balioa	2,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Gaur egun ez dago GIG honi buruzko inolako material didaktikorik.
- Azaleramendua harrobiaren goiko aldean dago; ingurua, berriz, oso narrasa dago. Gaur egun, GIGak ez ditu erabilera publikorako beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak betetzen.
- GIG hau adituentzat baino ez da interesgarria.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	2
Balio estetikoa	1
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	1
Zenbateraino ikusten den garbi	2
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	2
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	2

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	
Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	
Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	2
Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Gaur egun ez dago legez inolaz ere babestuta.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 12

SAKONETAKO KAREKIZKO FLYSCHA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,25**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sakonetako hondartzan, Itziar formazioko ebakidura ikusgarri bat bereizten da, Goi Kretazeoko hasierako (Cenomaniar, Turoniar, Coniaciar eta Santoniarreko) karekizko flyscharen adierazgarria.

Segida Andutzeko failan hasten da eta 700 m inguruko lodiera du. Kareharrizko eta tupazko estratu dezimetrikoz osatuta dago, eta turbidita txikiak ditu tartekatuta. Formazio horrek lasaitasun tektonikoko eta itsas transgresioko periodo luze baten hasiera markatzen du; periodo horretan, itsas hondoa lasai eta sakon bihurtu zen inguru hori, eta tupen eta kareharri tupatsuen nahiz turbidita gutxi bazuen sedimentazio hemipelagikoa izan zen nagusi.

Segida, halaber, aztarna fosilen museo natural bat da. *Chondrites* eta *Subphyllochora* izeneko adibide deigarriak nahiko garbi bereizten dira, eta *Rotundusichnium zumayensis* bereziki azpimarratu behar da, oso bitxia delako eta bertan definitu zelako lehen aldiz. Joaquín Gómez de Llarenak definitu zuen azken hori, honela: milimetro gutxi batzuetako zabalera duen lorratz helikoidal bat da, oso bira estuean bilduta, eta birek 40 cm-ainoko diametroko espira bat osatzen dute.

NOLA BERTARATU

15 minutu inguru oinez eginda erraz iristen da Sakonetako hondartzara Errota Berri atsedeneku eta landa-etxetik, bai eta Mendatagainako begiratokitik ere. Errota Berrira joateko, N-634 errepidean bertarako bidea hartu behar da Itziar eta Zumaia artean; eta begiratokira iristeko, berriz, Itxaspe kanpinera joateko bidea hartu behar da, Itziarko gainean.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Sakonetako karekizko flyscharen segidaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555816 m / Y= 4793995 m / Alt.= 2 m



Paleodictyon, gertutik ikusita.

GIG 12 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				●
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa: 4				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	3
Batez besteko balioa	3,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Sakonetako hondartza ez dago batere prestatuta, eta arriskutsua ere bada; horregatik, ez da komeni hura sustatzen jardutea.
- Sakoneta* ibilbide tematikoan interpretazio-puntuetako bat da (IP S8), eta hari buruzko informazio ugari dago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan. Dagoeneko erabiltzen da Geoparkeko irteera antolatu batzuetan.
- GIga oso garrantzitsua denez mundu-mailan, egokia litzateke aztarna fosilen museo bat prestatzea Zumaian.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoak	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	3
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	3,25

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Debebatuta dago fosilak edo laginak hartzea Organo Kudeatzailearen baimenik gabe.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 13

ARANTZAKO PORTUKO FLYSCH HAREATSUA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,50

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Aginaga formazioko flysch hareatsua Geoparkean nabarmen azaleratzen da Sakonetako hondartzaren eta Andikaraerrekako inguruaren arteko itsaslabarraren zehar-ebakian. Formazio horrek 1.500 metro inguruko lodiera du, eta bereizgarri gisa aipatu behar da turbidita asko eta asko dituela Goi Kretazeoko (Campaniarreko) kareharrien eta tupen artean tartekatuta. Ugaritasun hori periodo horretan izandako erregresio batekin dago lotuta; izan ere, haren ondorioz, ekialdeko kono siliziklastiko handi bateko turbiditarik distalena Geoparkeko itsas hondoetara iritsi ziren progradazio bidez.

Arantzako portu inguruan hainbat berezitasun hautematen dira, formazioa nolakoa den garbi erakusten dutenak. Turbiditek lodiera dekametrikoa dute, eta haietan, erraz bereizten dira Bouma sekuentziak, osoak edo partzialak, eta xafladura konbolutuen, xafladura gurutzatuen eta pikor-mailaketa positiboen adibide garbiak. Eta batzuetan, gainera, xafladura gurutzatu horien eragileak izan diren rippleak bereiz daitezke gainaldean.

Iknofosilen adibideak ere nahiko erraz aurki daitezke; esate baterako, *Scolicias*, *Paleodyction*, *Chondrites*, *Granularia* eta *Helminthoida*. Batzuk aztarnaz bete-betetako geruzatan daude eta erraz identifikatzen dira; beste zenbait, aldiz, txiki-txikiak dira eta isolatuta daude.

NOLA BERTARATU

15 minutu inguru oinez eginda erraz iristen da itsaslabarrera Errota Berri atsedenekutik; gero, Portu-txikiko begiratokira joan behar da (interpretazio-taula bat dago han). GIGera iristeko, soka batetik jaitsi behar da lehendabizi, eta ondoren, bide arriskutsu batetik behera jo.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Begiratokitik ikuspegi ederra dago, baina xafladurak eta aztarna fosilak gertutik ikusteko, ezinbestekoa da itsaslabarrera jaitea.




Aginaga formazioaren ikuspegi orokorra: turbidita asko ditu tartekatuta, eta haietan, aztarna fosilak daude.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 556350 m / Y= 4794013 m / Alt.= 2 m



Scolicia bat, gertutik ikusita.

GIG 13 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa			●	
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa: 3				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	2
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Ez da komeni marearteko zabalgunean sartzea. Portutxikiko begiratokitik formazioaren ikuspegi orokor bikaina dago; *Sakoneta* ibilbidean dago begiratoki hori (IP S9).
- Txalupatik egiten diren irteera gidatuetan azaldu.
- GIGa *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan agertzen da.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	1
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	2,5

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Fosilen edo laginen bilketa araututa dago.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 14

ZUMAIAKO FLYSCH MAASTRICHTIARRA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,63

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Algorriren mendebaldeko ertzean, Kretazeoaren bukaerako segida bat dago azaleratuta, 200 metro ingurukoa: kareharriak eta karekizko tupak ditu geruza txandakatuta, eta haietan, turbidita finak daude tartekatuta. Litologia horrek erakusten du itsas hondoa sakona (2.000 m ingurukoa) eta lasaia izango zela; eta hori estai horren hasieran izandako transgresioaren ondorioz eratuko zen. Itsas mailaren igoera horrek urrundu egin zuen Campaniarreko flysch hareatsuko turbiditak ekialdetik ekartzen zituen kono turbiditiko (Pirinioen eraketaren eraginez ekartzen zituen), eta horrenbestez, sedimentazioa lasai eta sakonera handian gertatu zen Eozenora arte. Lasialdi horri esker, zehazki islatu dira periodo geologiko bizi horretako eboluzioa nahiz aldaketa biologiko, klimatiko eta geologiko handiak (KT muga, Milankovitch, PE muga...).

Giro horretan, sedimentazio-tasa oso txikia izan zenez, segida kondentsatu bat eratu zen, eta haren aldaketa litologikoez zehatz-mehatz erakusten dituzte itsas mailaren aldaketa txikiek eragindako sekuentzia deposizionalak.

Paleontologiaren ikuspuntutik ere oso segida garrantzitsua da, batik bat, foraminifero planktonikoen oparotasunagatik, inozeramidoen suntsipenaren mailagatik eta KT mugako suntsipenaren aurreko azken amoniteen agerpenagatik. Ekinoideoen hondakinak, ostreidoak eta zenbait aztarna fosil ere badaude; azpimarratzekoak dira *Zoophycusen* adibide ikusgarri batzuk.

NOLA BERTARATU

Zumaiako segida maastrichtiarrera iristeko, Algorriko eskaileretatik jaitsi behar da. Azaleramendua mendebaldean dago nagusiki, baina ura behe samarrean dagoenean bakarrik joan daiteke bertara, eta kontu handiz ibili behar da, gainera.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Algorriko begiratokia.



Zumaiako segida maastrichtiarraren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 559269 m / Y= 4794331 m / Alt.= 1 m



Maastrichtiar erdiko kareharrie ta tupak.

GIG 14 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				●
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa: 4				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	4

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Inguru malkartsua da eta ez da komeni hara joatea. GIGa Algorriko begiratokitik ikus daiteke; aipatu beharra dago bisitari asko eta asko erakartzen dituela Geoparkeko begiratoki horrek.
- *Algorri* ibilbide tematikoan interpretazio-puntuetak bat da (IP A3), eta hari buruzko informazio ugari dago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan.
- GIG honi buruzko azalpenak eman beharko lirateke Geoparkeko irteera geologikoetan.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	4
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,63

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	3
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	3

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Fosilen edo laginen bilketa araututa dago.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Zumaiaiko arau subsidiarioetan GIG gisa sartu beharko litzateke.

GIG 15

ALGORRIKO KRETAZEO / PALEOGENO MUGA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,63

KALTEBERATASUN-MAILA: 2

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Kretazeoaren eta Paleogenoaren arteko muga (KT muga) Algorriko senadian dagoen geruza buztintsu fin eta ilun batek zehazten du; geruza hori, hain zuzen, Maastrichtiarraren bukaerako tupa gorrixken eta Daniarreko karekizko sekuentzia gorrixkaren artean dago. Mugak argi eta garbi adierazten du itsas faunaren suntsipen handia gertatu zela, eta badu beste berezitasun bat ere: meteorito batek Yucatánen izandako talkarekin lotutako konposizio-anomaliak ditu.

Mugaren eremuak 5 cm inguruko lodiera du eta zizaila alpetar batek zeharkatzen duelako bereizten da; izan ere, hainbat kaltzita-zainek definituriko zizaila horrek eten egiten du buztinaren albo-jarraitutasuna. Buztin horren barruan, nikel ugardun espinelak daude, mikrokristalak, kedarra eta, ikuspuntu geokimikotik, iridioaren anomalia garrantzitsu bat.

Paleontologiaren ikuspuntutik, Zumaia KT mugak hiru alderdi markatzen ditu: amoniteen erabateko suntsipena, foraminifero planktonikoen galera nabarmena (% 93ko galera biomasan eta % 70ekoa aniztasunean) nahiz karekizko nanoplanktonarena (% 80ko galera biomasan eta % 60koa aniztasunean).

Zumaia KT muga erreferentziako azaleramendu klasikoetako bat izan da mundu-mailan KT mugako suntsipena aztertzeko; talkaren teoriaren sortzaileek ere aipatu zuten Zumaia muga. Muga hori, gainera, funtsezkoa izan zen amoniteen bat-bateko suntsipena aztertzeko (Wiedman, J., 1988 eta Ward, P. *et al.*, 1993). Nazioarteko maila goreneko aitortpena egin diote azaleramendu horri, GEOSITE kategoria baitu, eta gainera, muga horretarako GSSP izendatzeko proposatua izan zen 90eko hamarkadan.

Zumaiatik San Telmo ermitaraino joan behar da autoz, eta handik, oinez jo behar da bidexka batetik Algorri lurmuturreraino (NW norabidea, itsasorantz), Algorriko senadi txikira iritsi arte. Senadira ura behe samarrean dagoenean bakarrik joan daiteke.

In situ edo Algorriko begiratokia.



K/PG eremua, itsasotik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 559383 m / Y= 4794406 m / Alt.= 0 m



Algorriko geruza eta iridiozko geruza barne hartzen duen kanala, gertutik ikusita.

GIG 15 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				●
Paleontologikoa				●
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 4				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	4

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Geoparkeko GIGetatik, honek du oihartzunik handiena nazioartean. Ez da komeni inguru honetara joatea. GIGa Algorriko begiratokitik ikus daiteke.
- *Algorri* ibilbide tematikoan interpretazio-puntuetako bat da (IP A3), eta hari buruzko informazio ugari dago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan. Egokia litzateke *Flysch, haitzen hitza* dokumentala sustatzea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	4
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,63

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	2
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua
	3

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Bereziakoa da. Fosilen edo laginen bilketa araututa dago.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago eta, nazioartean, GEOSITE kategoria du.
- Zumaiako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 16

ZUMAIAKO ZIKLIKOTASUN ESTRATIGRAFIKOA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,5

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Muga geokronologikoez gain, bada Geoparkean beste alderdi bat, interes geozientifiko handia pizten duena nazioartean: Milankovitchen ziklo astronomiko-klimatikoek Zumaia inguruko flyscheko arro-ken sedimentazioan izan zuten eragina. Eragin hori Daniarraren bukaera aldean nabarmentzen da bereziki, eta nazioarteko zenbait argitalpenek azpimarratu egin dute haren garrantzia duela gutxi.

Aitzgorri formazioan kareharriak eta tupa gorrixkak ageri dira tartekatuta etengabe, 5 pare inguruko paketetan bilduta. Bi ziklikotasun horiek Milankovitchen prezesio-zikloaren (20.000 urte) eta eszentrikotasun-zikloaren (100.000 urte) ondorio dira, hurrenez hurren. Mugimendu horiek gure planetak jasotzen duen Eguzki-energiaren kantitatea kontrolatzen dute, eta horrenbestez, baita klima ere; klimak, halaber, eragin handia du alterazio tektoniko garrantzitsurik ez duten itsas hondoetako sedimentazioan. Ziklikotasun hori ez da berdin hautematen ebakiduraren sektore guztietan, eta badirudi hori azaleramenduan bereizteko zailagoak diren ordena handiagoko beste ziklo batzuen ondorioa dela.

Ebakiduraren Eozenoko eta Kretazeoko zatian askoz zailagoa da ziklikotasun hori bereiztea, turbiditate asko eta asko iritsi zirelako arro-hondoetara.

NOLA BERTARATU

Azaleramendurik adierazgarrienak San Telmo ermitaren inguruan daude. Ermitatik ipar-mendebalderantz joan daiteke oinez horretarako egokitutako bidexkatik, *pretty cycles* deiturikoetara iritsi arte (IP A4).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ, itsaslabarraren gainaldetik. Itsasotik begiraturaz gero, Daniarreko zikloestratigrafia osoa erreproduzi daiteke.



Daniarreko formazioaren ikuspegi orokorra: ziklikotasun estratigrafikoa oso nabarmena da.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 559500 m / Y= 4794402 m / Alt.= 10 m



Pretty cycles deituriko eszentrikotasun-zikloak, gertutik ikusita.

GIG 16 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				●
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 4				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren ikuspegitik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	4

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- *Algorri* ibilbide tematikoan interpretazio-puntuetakoa bat da (IP A4), eta hari buruzko informazio ugarri dago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan.
- Dagoeneko erabiltzen da Geoparkeko irteera batzuetan. GIG honek interes handia eragiten du bisita-riengan, eta osagarri bikaina da mugei buruzko azalpenetarako.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,5

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesak kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Bereziakoa da. Fosilen edo laginen bilketa araututa dago.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Zumaiaiko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 17

SELANDIARREKO OINAZPIKO ESTRATOTIPOA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,50

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Daniarraren eta Selandiarraren arteko muga (GSSP) aldaketa litologiko handi batek zehazten du; oso karetsua den Aitzgorri formazioaren eta oinarri guztiz buztintsua duen Itzurun formazioaren arteko bereizketak, hain zuzen ere. Muga hori duela 61,1 milioi urtekoztat jo da. Horrez gain, mikrofauna planktonikoan izandako aldaketa txiki batzuek definitzen dute muga hori, bai eta karbono 13 isotopoaren minimo erlatibo batek ere.

Arroka karetsuetatik arroka buztintsuagoetarako bat-bateko aldaketa litologiko hori itsas mailaren 40-80 metro bitarteko jaitsieratzat jotzen da, eta jaitsiera hori, dirudienez, itsas hondoa hondoratze tektoniko batekin dago lotuta (arro osoan hautematen da hondoratze hori). Anomalia biotikoek eta isotopikoek, berriz, gaur egun zehaztu gabe dagoen aldaketa ozeanografiko globalen bat izan zela adierazten dute.

2010. urteko maiatzaren 6an, International Commission on Stratigraphy erakundeko kide batek urrezko iltzea jarri zuen Zumaian, muga horren estratotipoa dela adierazteko; hots, munduko mugaredua dela adierazteko. Horrenbestez, hondartza horrek Lurraren historian berebiziko garrantzia duela esan daiteke. Nazioartean, GSSP (Global Stratotype Section and Point) esaten zaio estratotipoari, eta urre-koloreko iltze baten eta identifikazio-plaka baten bidez dago adierazita.

NOLA BERTARATU

Selandiarreko oinazpiko estratotipoa San Telmo ermitari eusten dion hormatzarraren azpialdean dago, Itzurun hondartzaren hego-mendebaldeko ertzean. Hondartzara jaitsi eta ezkererantz joan behar da oinez, identifikazio-plaka ikusi arte.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua
	4
	2
	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Zumaiaiko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 29

PIKOTEAZPIA HARRI-KOSKORREZKO HONDARTZA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,38**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Pikoteazpia hondartza, harri-koskorrezkoa, sedimentu-kordoi bat da, luzean 1.400 metrokoa, eta Pikoteko itsaslabarraren oinean dago.

Hondartza osatzen duten harri-koskorrak itsaslabarra goitik behera erori ondoren sortuak dira; olatuek, izan ere, etengabe egiten dute talka itsaslabarrean, eta higadura horren ondorioz, bai eta itsaslabarraren oinean dauden arroka-zatiek ondoren eragiten duten urraduraren ondorioz ere, itsaslabarrak amore-edo ematen du azkenean, eta goitik behera erortzen da. Higadura-prozesu horrek ondorio garbia dauka: ertz arrokatsuak, apurka-apurka, atzera egitea. Labarretik behera itsasbatzer-erantza eroritako materialak biribilduz joaten dira gero, behin eta berriro elkarren kontra talka egitearen poderioz. Ondoren, olatuek ordenatu egiten dituzte material horiek, eta hondartzako kordoa eratzen da. Harri-koskorrak 10-40 cm bitartekoak dira, eta eskuarki, teilakatuta daude.

Hondartzak islapenezko profila du. Itsaslabarraren ondoko hondartza-eremua malda txikoa da, ia laua, luzean 10 metro ingurukoa, swash-prozesuen ondorioz sortua (olatuak kolapsatzearen eta barreiatzearen ondorioz, alegia). Itsaso aldera, berma bat dago, malda handikoa (15°), eta haren eraginez, olatu erasotzaileak, silueta batimetrikoen norabide berean jartzen direnez, islatu egiten dira, batzuetan.

Olatu erasotzaileek altueraren nahiz periodoaren aldetik izaten dituzten gorabeherak eta mareak direla medio itsas mailan izaten diren aldaketek eragin egiten dute hondartzaren profilean, eta moldatu egin behar izaten du urtaroen arabera aldaketa horietara. Eta hondartzan zehar harri-koskor handi-txikiak banatzeko moduan ere eragiten du energia-gradiente horrek.

NOLA BERTARATU

Algorritik (GIG 15) zabalgunean aurrera mendebalderantz oinez joatea da aukera bat, eta beste bat, Elorriagako atsedenekutik behera doan pistatik jaistea.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Itsasbeheran soilik joan daiteke Pikoteazpira, eta arriskutsu samarra ere badenez, hondartza hau Elorriagako begiratokitik edo Algorrikotik ikustea gomendatzen dugu.



Harriribilen hondartzaren gertuko ikuspegia. Plastikoak eta enborrak goiko plataforman pilatzen dira.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 558971 m / Y= 4794108 m / Alt.= 6 m



Plastikoak zakuetan pilatzen dira terraza supramarealean helikopteroz atera ahal izateko.

GIG 29 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	2
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,25

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Zaila da leku honetara iristea. Ez da komeni jendea marearteko zabalgunera bidaltzea. Algorriko eta Elorriagako begiratokiak oso egokiak dira GIG hau ikusteko.
- Algorri* ibilbide tematikoan interpretazio-puntuetako bat da (IP A3), *Elorriaga* ibilbidean ere bai (IP E3), eta hari buruzko informazio ugari dago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan.
- Komeni da Geoparkeko itsaslabarren higadura zenbaterainokoa den kuantifikatzeko eta eredu bat zehazteko ikerketa-ildo bat sortzea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoak	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	3,38

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuz.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Bereziakoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak du hura zaintzeko ardura. Hondartzaren goialdean pilatzen diren plastikoak-eta biltzeko kanpainak egitea komeni da.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Zumaiako eta Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 30

SAKONETAKO MULTZO GEOMORFOLOGIKOA

BALIO INTRINTSEKOA: 3,75

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,63

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sakonetako itsasbazterra Geoparkeko paisaia geomorfologikorik ikusgarrienetako bat da. Malkartsua oso, ilargi-erdi itxura du, ipar-mendebaldera begira dago, eta bi muino txiki ditu muga, ezker-eskuin. Kostalde-zati honen morfologia bi faktoreren eraginpean dago, nagusiki: batetik, itsaslabarra osatzen duten materialen orientazioa, okerdura eta konpetentzia (marearteko eremu osoan baitaude azaleratuta), eta bestetik, olatuek itsasotik dakarten norabidea. Segidan arroka gogorrenetakoak diren zatiak dira lurmuturrak (hareharriz eta kareharriz osatuak), eta hondartza, berriz, zatirik tupatsuenan sortu da.

Sedimentu-urritasuna da nagusi senadi txiki honetan, eta dauden sedimentu bakarrak ekialdean ageri diren hondarrezko gune txiki batzuk eta itsaslabarraren oinarrian dauden harri-koskorrezko hondartza bakartu batzuk baino ez dira. Horri esker, marearteko abrasio-plataforma zoragarria bere handitasun osoan ikus daiteke itsasbeheran, agerian geratzen denean. Eremu ia lau hau higadura mekanikoko zenbait prozesuren eraginez sortu da, eta kosta-lerroari atzera eginarazi dioten prozesu horien guztien adibide garbiak ageri dira hemen.

Marearteko zabalgunean *kubeta* deritzen hainbat zulo edo sakonune daude, tamaina metrikotik dekametrikora bitartekoak, eta harri-koskorak eta hondarra pilatzen dira haietan; sakonera txiki eta zabalera handiko egitura beheeratuak dira kubetak, eta azaleratuta dauden materialak konpetentzia-maila berekoak ez izateak lagunduta sortu ohi den higadura diferentziala edo diaklasa txikiak tarteko direla eratzten dira. Hutsune horien hormak hainbat organismo zulakarrik egindako zulaketaz josita daude (itsas trikuak, molusku litofago edo harrijaleak, etab.). Beste elementu batzuk ere badaude, hala nola *jentilen lapiko* deritzenak; sakonune zirkularrak dira, hondo laua, konkaboa edo inbutu-itxurakoa izaten dute, eta hormak, berriz, bertikalak, zentimetrikoak edo metrikoak.

NOLA BERTARATU

15 minutu inguru oinez eginda erraz iristen da Sakonetako hondartzara Errota Berri atsedeneku eta landa-etxetik, bai eta Mendatagainako begiratokitik ere. Errota Berrira joateko, N-634 errepidean bertarako bidea hartu behar da Itziar eta Zumaia artean; eta begiratokira iristeko, berriz, Itxaspe kanpinera joateko bidea hartu behar da, Itziarko gainean.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Mendatagainako begiratokia.



Sakonetako labar eta marearteko zabalgunearen aireko ikuspegia.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555752 m / Y= 4794035 m / Alt.= 0 m



Sakonetako marearteko zabalgunea atsedeneku berritik.

GIG 30 BALORAZIOA

BALIO INTRINTEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrika: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Sakonetako hondartza ez dago batere prestatuta, eta arrisksua ere bada; horregatik, ez da komeni hura sustatzen jardutea.
- *Sakoneta* ibilbide tematikoan interpretazio-puntuetako bat da (IP S4), eta hari buruzko informazio ugari dago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan.
- Dagoeneko erabiltzen da Geoparkeko irteera antolatuta batzuetan. Aukera asko ditu.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	4
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	3
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,63

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 31

SANTIAGOKO DUNAK ETA PADURA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,38**KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Urola ibaiaren bokaleko konplexu sedimentarioa oso aldarazita dago, giza jarduna dela tarteko. Santiago hondartzaren mendebaldean egindako dikeek, batetik, eta hegoaldean kirol-portu bat eraiki eta jarri izanak, bestetik, aldarazi egin dituzte bai olatuak lehertzeko modua bai marea-lasterren banaketa. Horren guztiaren ondorioz, eremu honetako egitura sedimentarioak beren berezko dinamikatik oso urrun daude.

Hala eta guztiz ere, elementu interesgarriak daude oraindik ere inguruan, hala nola Santiago hondartzako marearteko eremua, era askotako ohe-formak ageri baitira, eta eremu supramarealeko duna-sistemak. Horrelako ingurune sedimentarioak gutxi dira euskal kostaldean, eta beraz, oso balioetsiak dira testuinguru honetan. Haizeak egiten duen garraio-lanaren ondorioz sortzen dira dunak; izan ere, haizeak 4 m/s-ko abiadura gainditzen duenean, gai izaten da hondartzan agerian dauden marearteko eremuetatik eremu supramarealera hondarra garraiatzeko. Han, gero, sedimentua harrapatuta geratzen da dunako landaretzan. Santiagokoan, zehazki esatera, dunako 50 landare-espezie ere badaude. Duna-zelai hau ere oso aldarazita dago, inguruan eraikinak daudelako, batetik, eta bestetik, bidexka arautu gabeak izugarri ugaritzen ari direlako.

Hondartzaren hegoaldean padura-gune txiki batzuk daude, eta interes handi samarrekoak izanik ere, hain daude dikez, bidexkaz eta bestelako egiturez inguratuta, zaila izango baita epe laburrean irautea.

NOLA BERTARATU

Santiago hondartzatik gertu, badago bertarako egokitutako aparkaleku bat.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Talaimenditik ere ederki eta zabal ikusten da Urolaren estuario osoa.



Santiagoko dunen itxura orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
X= 560965 m / Y= 4794381 m / Alt.= 4 m



Santiago hondartzako dunan ageri den xafladura bat, gertutik ikusita.

GIG 31 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala:				
Oharrak: Eremu guztia oso antropizatuta dago, hainbat eraikuntza-lan baitaude, hala nola zenbait dike, Zuloaga etxea eta kirol-portua.				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	1
Batez besteko balioa	2,25

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Hondartza guztiz prestatuta dago, eta paduran nahiz dunetan zehar ibiltzeko bidexkak ere badaude. Dunetan zeharreko bidexkak kontrolatzea eta kopurua gutxitzea komeni da, oinezkoak edozein lekutatik ibil ez daitezzen.
- Hondartzaren sarreran landaretzaren interpretazio-taula bat dago. Komeni da arlo geologikoa ere lantzea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoak	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	2
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,38

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	3	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	4
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesak kontuan hartuta.
- GIG gisa aitortuta dago. GIG osoa kudeatzeko plan berezi bat dauka Udalak.
- Bidexka-kopurua gutxitzea eta dikeak aldatzea komeni da, oztopatu egiten baitute paduraren eta dunen berezko dinamika sedimentarioa.
- Zumaiako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeko komeni da.

GIG 32

SATURRARAN HONDARTZA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,50**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,50**KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Saturraran hondartza Artibai ibaiaren bokaletik gertu dago eta hondarrezkoa da. Ipar-mendebaldera begira dago, eta erabat hondartza bildua da, ilargi-erdi itxurakoa; hondartzara datozen olatu-trenetara egokituta dago, beraz.

Hego-mendebaldean erreka kanalizatu bat du muga, Mijoa haranetik etorria, harri-lubetazko kai txiki baten mendebaldera itsasoratzen dena. Ipar-ekialdera, substratuaren azaleramendu baten kontra amaitzen da hondartza; hain zuzen, ekialderantz sedimentu-garraioa gertatzea eragozten du azaleramendu horrek. Ondarroako portuko dikeen kokapenak ere eragiten du hondartzaren kokapenean, eta aldarazi egin du haren jatorrizko morfologia eta stock sedimentarioa.

Hondartzako sedimentuaren osagai nagusia kuartzozko hondarra da, eta hurrena, itsas organismoen zatiak (bioklastoak) eta itsaslabarreko arroka-zatiak (litoklastoak). Sedimentu horiek sedimentu-pilaketak dituzte jatorri; hain zuzen ere, hondartzatik gertuko itsas eremuan urpean dauden sedimentu-pilaketak. Olatuen energia disipatzea gertatzen den eremuan, harri-koskorrez osatutako kordioak ageri dira, eta litekeena da harri-koskor horiek erreka dikedea egiteko erabili ziren materialak disgregatu eta garraiatzetik iristea hona. Harri-koskorren proportzioa gutxituz doa ipar-ekialderantz, ia bat ere ez egoteraino.

Olatuen indarra eta altuera, baina, asko aldatzen dira urtaroaren arabera (indar handikoak eta ordenatuak izaten dira neguan, eta udan, aldiz, indar gutxiagokoak eta sakabanatuak), eta horrek, marea-bitarteeekin batera, urtean zehar hondartzaren profila aldatuz joatea ekartzen du; udaldian, adibidez, handiagoa izaten da sedimentu-pilaketa.

NOLA BERTARATU

N-634 errepidetik autoz joan daiteke hondartzako aparkalekuraino.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Saturraran hondartzaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 547823 m / Y= 4796680 m / Alt.= 2 m



Flysch beltzeko azaleramendu batek egiten dio muga Saturraran hondartzari iparraldean.

GIG 32 BALORAZIOA

BALIO INTRINTESEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa		●		
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa		●		
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	2
Batez besteko balioa	2,5

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Saturraran hondartzak zerbitzu guztiak ditu. Erraza da GIG honetara iristea, eta aukera asko ditu.
- Saturraran inguruan georuta bat sortu.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,5

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrinsekoa	3	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	4
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	2
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 33

ITZURUNTXIKIKO HIGADURA-FORMAK

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,63**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Harrizko hondartza da Itzuruntxiki, eta olatuen danbatekoek nahiz harribilen etengabeko kolpeek itsaslabarren oinean zenbaterainoko azpijana eta zuloak egin ditzaketen oartzeko adibide ugari eta ikusgarriak ditu.

Talaimendiko hormatzarreen (tupak, kareharriak eta turbidita finak ditu txandakatuta), 20 metro inguru luzeko azpijan jarraitu bat ageri da, higadurazko *notch* ere baderitzona. Itsaslabarraren oinean dagoen zati higatu horrek 2 metroko altuera du, eta 1,5 metroko sakonera. Azpijan horrek itsaslabarrari egonkortasuna kentzen dio, eta denborarekin luizi handiak gertatzea eragin dezake.

Oineko azpijana dagoen lekutik iparralderantz berrogeita hamar metro harago, segida askoz tupatsuagoa da, eta turbiditak, aurrekoak baino lodiagoak, tartekatuago ageri dira. Litologia horrelakoa izateak higadura ere beste modu batekoa izatea eragiten du: zulo bakartu eta sakon samarrak sortu dira hareharrizko geruzen arteko leku tupatsuetan. Hemengo zati higatuek 3 metrotik gorako altuera dute, eta sakonagoak ere badira.

NOLA BERTARATU

Itzurungo ipar-ekialdera joateko bidean behera jaitsi behar da lehenbizi, eta gero, handik Itzuruntxiki-
ra igaro. Ura behe samarrean dagoenean soilik joan daiteke.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Itzurun hondartza.



Itzuruntxikiren hasieran sortu den higadurazko *notch* jarraituaren ikuspegia.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 560078 m / Y= 4794531 m / Alt.= 11 m



Segidako zati tupatsuetan sortu diren higadurazko zuloetako batzuk.

GIG 33 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena		Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	1
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	2,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

• Oso azalaramendu ikusgarri eta didaktikoak daude GIG honetan, baina ez da komeni beren kasa dabil-tzanak hura ikustera bidaltzea, arriskutsu samarra da eta. Geoparkeko irteera gidatueta erakusteko oso leku interesgarria da. Itsasontzitik ere ikus daiteke.

• *Algorri* ibilbidean interpretazio-puntuetako bat da (IP A14). Hari buruzko informazioa ere badakarte bai *Flysch biotopoa* gidaliburuak eta bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuak.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekuri onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,63

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babes kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da.
- Zumaia arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 34

MARIANTON PUNTAKO BLOKE ERORIAK

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,63

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Marianton punta Itzurun hondartzaren ipar-ekialdeko erpinean dago, eta bloke erori handi-handien pilaketa ederra dauka oinean. Tamaina metrikoko turbiditak dira denak, alboko itsaslabarretik behera eroriak. Eredu honetan, segida eozenoa turbidita lodiz osatuta dago, eta *matrize* tupatsu batean tartekatuta daude horiek; eragile atmosferikoek erraz higatzen duten matrize batean, beraz. Hori gertatzen denean, tupek ezin izaten diote eutsi turbiditen pisuari, eta azkenean erori egiten dira, bloke handiak, gainera.

Blokeak modu kaotikoan daude, eta oro har, erpin eta ertz zorrotz samarrekoak dira; horregatik, pentsatzekoa da oraindik ez direla oso arrastatuak izan eta, horrenbestez, orain dela nahiko gutxi erori zirela.

Bloke-eremu horren alboan beste luizi bat ere badago, eta bigarren horrek tupei eragiten die; euri-jasak izaten direnean, izan ere, maiz erortzen dira, eta morfologia konikoko luiziak sortzen dira horrelakoetan.

NOLA BERTARATU

Itzurungo ipar-ekialdera joateko bidean behera jaitsi behar da lehenbizi, eta gero, blokeak gertutik ikusi nahi izanez gero, Itzuruntxikira igaro behar da; baina ura behe samarrean dagoenean soilik joan daiteke bertara, eta arriskutsu samarra da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Itzurun hondartza.



Bloke batzuek 20 m³-ko tamaina ere badute.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 560032 m / Y= 4794681 m / Alt.= 1 m



Bloke handiak modu kaotikoan pilatzen dira.

GIG 34 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	2
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Oso azalaramendu ikusgarriak daude GIG honetan, baina ez da komeni beren kasa dabilzanak hura ikustera bidaltzea, arriskutsu samarra da eta. Geoparkeko irteera gidatuetan erakusteko oso leku interesgarria da. Itzurun hondartzatik ikus daiteke.
- Algorri* ibilbidean interpretazio-puntuetako bat da (IP A14), eta *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan aipatuta dago.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,63

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	3
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da.
- Zumaiako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeko komeni da.

GIG 35

PIKOTEKO LUIZIAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,5**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,75**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Pikoteko itsaslabarrak 150 metroko altuera du, eta luizien ondorioz sortutako pilaketa itzela ikus daiteke bertan, duela nahiko gutxi gertatua eta oso ikusgarria.

Segida osatzen duten geruzak ia erabat bertikalean daude, eta kareharriak, tupak eta tamaina dezimetrikoko turbiditak dira, tartekatuta. Bata bestearen ondoren geruzak irristatuz joatearen ondorioz sortzen dira luiziak, eta faktore hauek eragiten dute geruzak hain erraz irristatzea: okerdura handia izateak, geruzak kompetentzia txikikoak izateak, eta arroka-multzoak zartadurak izateak. Itsaslabarraren goiko aldetik erortzen dira geruzak eta oinean pilatzen dira, eta bloke-kaos itzela sortzen du horrek: 100 metroko altueraraino ere iritsita dago, eta higadurazko fronte itzela du sortua oinean, 300 metro inguruko zabalera eta 20 metrotik gorako altuerakoa.

Itsaslabarraren goi-goiko aldean zartadura bertikal bat dago, NE-SW norabidekoa; 30 metro inguruko garapen bertikala du, eta 3 metro dago irekita. Zartadura horrek babestuta 600 m² inguruko bloke handi bat geratu da itsaslabarrean, eta arriskua dago haren eraginez beste luizi handi bat gertatzekoa.

Luizi horietan eroritako arroka-blokeei esker, harri-koskorrezko hondartza handi bat sortu da itsaslabarraren oinean (GIG 29).

NOLA BERTARATU

Autoa Elorriagako atsedenekuan utzi, eta bidean behera oinez izen bereko begiratokira joanda.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Elorriagako begiratokia (IP E3), edo bestela, itsasotik hurbilduta.



Pikoteko luizien ikuspegi panoramikoa, itsasotik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 558910 m / Y= 4793899 m / Alt.= 56 m



Geruzaz geruza sortzen den irristaketaren adibide argia.

GIG 35 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena		Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,5

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- GIG hau ikusi nahi izanez gero, Elorriagako begiratokia erabilteza komeni da. Gaur egun badago interpretazio-taula bat (IP E3), eta hari buruzko informazio ugari ematen da *Flysch biotopoa* gidaliburuan.
- Ondo legoke itsasontziz egiten diren irteeretan leku honi buruzko azalpenak ere ematea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,75

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak du hura zaintzeko ardura.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Zumaiako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 36

BARATZAZARRETA KO HEGAL-IRRISTATZEA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Baratzazarrak izeneko lekua itzelezko lur-irristatzea gertatzearen ondorioz sortu da (8 hektareako azalera du), eta argi eta garbi bereizten da itsaslabarrean, landaretzaz estalita baitago erabat. Mendi-hegalaren irristatzeak kono-itxura du goitik begiratuta, eta 158 metroko altueran hasten da, itsaslabarraren bazter-bazterrean. Irriatzearen frontea nabarmen ikusten da flysch formazioaren estratu bertikaletatik gora, luzetara 400 metro inguruan.

Mendi-hegalen irristatzea estratifikazio-planoek eraginda gertatzen da, konpetentzia handieneko geruzak konpetentzia txikienekoen gainean beherantz irristatzen direnean. Irriatze-prozesu geldo eta jarraitu bat sortzen du horrek, eta irriatze horren eraginez, leku batzuetan toles antiklinal ikusgarriak eta zartadura batzuk sortu dira; gerora, toles eta zartadura horietara moldatuta sortzen da, hain zuzen, arka-masa higitzeak eragiten duen deformazio geldo eta jarraitua. Bestalde, itsaslabarraren frontean *creeping* edo *narraste* deritzon irriatze-mota ere ikusten da zenbait lekutan, ederki gainera, irriatzen ari den masa horrek beherantz higitze horretan flysch formazioko estratu subertikalen gainean sorrarazia.

Baratzazarretako irriatze-eremua oso ezegonkorra da, ziur asko hiru faktore hauek tarteko direla: inguruko errekatxoek dakarten ur ugaria, geruzen okerdura handia, eta flyscha osatzen duten geruzak motak txandakatuta egotea. Pikoteko luizia ez bezala (eta albo-alboan dago hura), Baratzazarretako irriatze-eremua landaretzaz estalita dago, eta horrek ere adierazten du oso pixkanakako irriatze-modu bat dela bertakoa eta denbora luzean gertatzen ari dela. Hori uste izateko beste arrazoi bat ere badago, gainera: inguru horretan bat-bateko luizi handi bat gertatu izanaren erreferentzia historikorik ez dagoela, hain zuzen.

NOLA BERTARATU

Autoa Elorriagako atsedenekuan utzi, eta bidean behera oinez izen bereko begiratokira joanda, edo bestela, irriatze-eremuan bertan egindako bidean behera marearteko zabalgunera jaitsita.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Tolesak eta *creeping* ikusteko, marearteko zabalgunera jaitsi behar da, bidean behera. Elorriagako begiralekutik (IP E3), berriz, hegal-irriatze osoaren ikuspegi orokor bikaina dago.



Geruzak pixkanaka irriatzearen ondorioz sortutako tolesak eta zartadurak, gertutik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 557721 m / Y= 4793736 m / Alt.= 33 m

*Creeping* deritzon efektua, irriatze-eremuaren frontean.

GIG 36 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Irristatze-eremua osorik zeharka daiteke bidean behera jaitsita, tolesak eta *creepinga* ikusteko.
- Gaur egun interpretazio-taula bat badago (IP E3) Elorriagako begiratokian, eta GIG honi buruzko informazio pixka bat azaltzen da, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan eta bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan.
- Ondo legoke itsasontziz egiten diren irteeretan leku honi buruzko azalpenak ere ematea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	2
Azpiegiturak eta zerbitzuak	1
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	
Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	
Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak du hura zaintzeko ardura.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 37

ALGORRI-PORTUTXIKIKO MAREARTEKO ZABALGUNEA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,63**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Deba eta Zumaia arteko itsasbazterreko biotopoko marearteko zabalgunea ikaragarri ederra da, eta Kantauri itsasoko ertzean diren abrasio-plataforma guztien artean ikusgarrienetako bat. Luzean duen hedadura handiagatik eta eremuaren garapenagatik nabarmentzen da, batik bat.

Algorri eta Portutxiki arteko abrasio-plataformak 3,2 km ditu alderik alde, eta itsasbeheran soilik geratzen da agerian; leku batzuetan, 300 metrotik gora zabal ere bada itsaslabarraren oinetik. Gai-nazal handi horrek % 1eko malda du, batez beste, eta itsaslabarrak atzera egitearen ondorioz sortu da. Agerian geratuz joan den heinean, itsasoak eta harribilek higatu egin dute apurka-apurka, eta horrela sortu dira zabalgunearen zenbait lekutan dauden ohiko gainazal leun horiek. Higadura diferentzial horrek era askotako egiturak sortu ditu zabalgunean, hala nola kanalak, lapikoak, sakonuneak, hormak eta hamaika zoko, eta horien guztien babesean ekosistema oparoa sortu da inguruan: Euskal Autonomia Erkidegoan den ekosistema konplexu eta aberatsenetako bat.

Itsas hondoa kartografia egina dago, eta gaur egun kostaldea dagoen lekutik 8 kilometroraino jarrai dakioko plataformari; han, 80 metrokoa da sakonera. Zeharkako ebakidura eginda, zenbait maila ikusten dira, koska txiki banaz bereizita, eta pentsa liteke, beraz, itsas maila gaur egun baino beherago zegoen garaietan sortutako antzinako plataformak eta itsaslabarrak direla.

NOLA BERTARATU

Hiru lekutara joan daiteke plataforma ikustera: Algorriko begiratokira (GIG 17), Elorriagakora (GIG 36) eta Portutxikikora (GIG 15).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Elorriagako bidea, Algorriko begiratokia, Elorriagakora eta Portutxikikora dira lekuri onenak. Ez da komeni marearteko zabalgunean sartzea.



Marearteko zabalgunea Algorritik ikusita.

**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 556800 m / Y= 4793921 m / Alt.= 1 m



Marearteko zabalgunearen bertako ikuspegia.

GIG 37 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- GIG hau ikusi nahi izanez gero, Algorriko, Elorriagako edo Portutxikiko begiratoiak erabilteza komeni da. Interpretazio-taula bana dago hiruretan, eta GIG honi buruzko informazio ugari ere bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan nahiz *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan.
- Euskal Kostaldeko Geoparkean diren fenomeno geologiko guztien artean hauxe da kanpora ondoen saldu daitekeena. Ondo legoke antolatzen diren irteeretan gai honi buruzko azalpenak ere ematea.
- Ez da komeni jendea marearterko zabalgunera joan dadin sustatzen jardutea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	4
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	3
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	3,63

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak du hura zaintzeko ardura.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Zumaiako eta Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 38

TXERTUDIKO GABARLEKUKO ITSASLABARRAK

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,38

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Txertudiko Gabarlekua deritzon lekua morfologia malkartsu berezia da Geoparkeko kosta-lerroan. Izan ere, itsaslabarrak hemen ez dira berez altuera handikoak, baina bai lerrozuzenak, eta deigarri gertatzen da hori.

Kostaldeko zati honetan, flyscharen geruzek N120°E norabidea dute, gutxi gorabehera, eta 45°-ko okerdura ipar-ekialderantz, itsasaldera. Kostaldearen norabidea estratifikazioarekiko paraleloa da zati honetan, eta geruzetan gertatzen den higadura homogeneoa izatea eragiten du horrek. Geruzak modu uniformean erortzen direnez, izan ere, itsaslabarren atzera-egitea ere homogeneoa da, eta flyscharen estratifikazioak berak duen forma hartzen du kostaldeak, beraz: erabat kostalde lerrozuzena.

Geoparkeko beste leku batzuetan ere ikus daiteke fenomeno hori, baina hemen da nabarmenen, eta zabalgunea ere hemen da luzeen, 700 m ingurukoa baita alderik alde.

NOLA BERTARATU

Itxaspe kanpinetik *Sakoneta* ibilbidea hartu behar da, Itxaspeko begiratokiraino (IP S2).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Itxaspeko begiratokia eta Amabirjinabistakoa dira lekuri onenak; azken hori N-634 errepidean dago, Debako herrigunetik gertu. Itsasotik ere ederki ikusten da, eta Mendatagainako begiratokitik ere bai.



Itsaslabar lerrozuzenen ikuspegia; kostaldeak flyscharen geruzen estratifikazio-planoaren forma hartzen du.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 554131 m / Y= 4794299 m / Alt.= 1 m



Marearteko zabalgunea oso homogeneoa da itsaslabarren oinean.

GIG 38 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra		Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	●	Izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala: GIG honetako geruzak galtzada-harriak egiteko harrobi izan dira.				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	2
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Itxaspeko begiratokian eta Mendatagaineokan interpretazio-taula bana daude; *Sakoneta* ibilbidean daude biak, lehena IP 2 puntuan eta bigarrena IP 4 puntuan. Bestalde, GIG hau interpretatzeko informazio pixka bat badago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan.
- Amabirjinabistako begiratokian ere interpretazio-taula bat jar daiteke, oso erraz iristeko moduko lekua baita.
- Ondo legoke itsasontziz egiten diren irteeretan leku honi buruzko azalpenak ere ematea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,38

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeari komeni da.

GIG 39

ITZURUNGO KOBAZULOAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,88**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Itzurun hondartza hormatza gorrixka bereizgarri batek mugatzen du hego-mendebaldean; kolore hori Daniarreko kareharri zor die, eta N120°E norabidean kokatuak, kareharri horiek definitzen dute itsaslabarraren frontea. Daniarreko kareharriak gogor samarrak dira, eta ondo jasaten dute itsasoaren oldarra; olatuak ipar-mendebaldetik sartzen dira eskuarki, eta 45° inguruko angelua osatuz zeharkatzen dute itsaslabarraren behealdea.

Arrokan dauden zartadura bertikaletan zehar higadurak ederki urratu ditu bideak, eta kobazulo ikusgarriak sortu ditu horman. Izan ere, zartadurak ahultasun-planoak dira arrokan, eta beraz, leku egoiki-egokiak higadurak aurrera egiten jarrai dezan, bai sakonean bai zabalean; itzelezko barrunbeak sortu dira horrela, 8 metrokoak ere bai, SW norabidean garatuak. Gainera, barrunbe horiek oso forma bitxiak uzten dituzte agerian flyscharen geruzek osatzen duten *hostopil* moduko horretan.

Kobazulo guztien artean bat nabarmentzekotan, ekialdeen dagoena aipatu behar da, 10 metrotik gorako garapena duelako, batetik, eta bestetik, geruzen norabidearekiko paralelo gertatu delako higadura (SE norabidean, alegia).

Geoparkean elementu geologiko ezagunik baldin bada, Itzurungo kobazuloak ezberrik gabe horietako bat dira, argazkitan hainbestetan ikusiak, oso baitira ikusgarriak, eta are ikusgarriagoak oraindik itsasoak horma gogor jotzen duenean, kobazuloek sifoi txikiak baitirudite horrelakoetan.

NOLA BERTARATU

Oinez, Zumaiaiko herrigunetik Itzurun hondartzara.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Kobazulo baten barnealdeko ikuspegia.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 559654 m / Y= 4794362 m / Alt.= 0 m



Zartadura bertikal batean zehar garatutako kobazuloetako bat, gertutik ikusita.

GIG 39 BALORAZIOA

BALIO INTRINTESEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		Izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala: San Telmo ermita (Zumaiaiko arrantzaleen zaindariarena).				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,25

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Hondartzan zerbitzu guztiak daude, eta jende asko ibiltzen da udaldian. Aukera asko ditu.
- Algorri* ibilbide tematikoan interpretazio-puntuetako bat da (IP A8), eta hari buruzko informazio ugari dago *Flysch biotopoa* gidaliburuan. *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan ere aipatzen da.
- Ondo legoke Geoparkean antolatzen diren irteeretan leku honi buruzko azalpenak ere ematea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoak	4
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,88

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	4
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak du hura zaintzeko ardura. Erabilera Berezikoko Zona izendatuta dago.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Zumaiaiko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 40

AITZURIKO KOBAZULOAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,38**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Aitzuriko kobazuloak izen bereko lurmuturraren oinean daude, eta tamaina berdintsuko bi zulo handi dira; ahoa 15 metro inguru zabal eta 20 metro garai da bietan. Kobazuloen garapena SE norabidean gertatu da, eta 25 metro ingurukoa da gaur egun.

Bi barrunbe handi hauek Itziar formazioaren behealdean sortu dira; han, ipar-ekialderantz okertuta daude formazioa osatzen duten kareharriak eta tupak. Gertu dago Andutzeko faila (GIG 25), eta haren eraginez sortutako zenbait norabidetako zartaduretan zehar gertatu da, hain zuzen, higadura, bi kobazuloak sorrarazi dituena. Izan ere, zartadura horiek ahultasun-planoak izanik, itsasoak errazago erasotzen ditu, eta azkenean zulo horiek sortu dira geruzekiko paralelo.

Erdi urperatuta dagoen burezur baten begi-zuloak omen dirudite bi kobazuloek.

NOLA BERTARATU

Itxaspe kanpinetik *Sakoneta* ibilbidea hartu behar da, Itxaspeko begiratokiraino (IP S2).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Ura behe-behean dagoenean bertaraino joan daiteke, baina arriskutsua da. Itxaspeko begiratokia erabiltzea da egokiena. Itsasotik ere oso ondo ikusten da.



Aitzuri ingurua, Itxaspeko begiratokitik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555153 m / Y= 4794134 m / Alt.= 1 m



Aitzuriko kobazuloak gertutik, Amabirjinabistako begiratokitik ikusita.

GIG 40 BALORAZIOA

BALIO INTRINTEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Itxaspeko begiratokian interpretazio-taula bat dago (IP S2). Bestalde, GIG hau interpretatzeko informazio pixka bat badago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan.
- Amabirjinabistako begiratokitik ere ikusten dira.
- Ondo legoke itsasontziz egiten diren irteeretan leku honi buruzko azalpenak ere ematea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	3
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,38

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babesak kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeko komerziak da.

GIG 41

MENDATAKO UR-JAUZIA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,50**KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Haran esekiak Geoparkeko ezaugarri geomorfologiko bitxienetako bat dira, eta bertako itsaslabarren atzera-egite bizkorren adierazgarri agerikoenetako bat ere bai. Azalpen erraza daukate. Itsaslabarrak higatzeko eta atzera egiteko prozesua bizkorragoa denean errekastoen ibilgua higatzekoa eta zultzekoa baino, itsaslabarrak irabazle-edo gertatzen dira, harana esekita gertatzen da, eta errekastoko urak itsasora jauzi egitea beste aukerarik ez duenez, ur-jauzi txiki bat sortzen da.

Mendatako errekastoa 1 km luze ere ez da, eta hark drainatzen duen arroak 65 hektarea inguru ditu. Urte osoan du ura, baina emari handirik ez du izaten normalean, eta higadura-gaitasun txiki samarrekoa da, beraz. Haran eseki honek badu berezitasun bat, alabaina: itsaslabarrak errekastoa bereganatu izanaren ondorioz eratu zela. Aspaldi ez dela, gaur egun ur-jauzia dagoen lekuan itsaslabarrak atzera egin eta errekastoa harrapatu zuen, eta ura amilburu aldera desbideratu zen, NE norabidean 100 metro aurrerago eramaten zuen lehengo ibilgua utzita. Gaur egun, paleoibilgua hori sedimentuz eta landarez estalita dago, baina oraindik ere garbi asko igartzen da inoiz zer bide egiten zuen.

Itsaslabarrak errekastoa bereganatu izanak 22 metroko altuerako ur-jauzi polit bat sortu du, bereziki ezegonkorra den leku batean, gainera, eta itsaslabarreko zartadurak direla tarteko, luizi txikiak ere maiz askotan gertatzen dira.

NOLA BERTARATU

Mendatagainako begiratokiko aparkalekutik oinez 10 minutu inguru ibilita iristen da Mendatako ur-jauzira, eta begiratokira, berriz, Itziarko gainetik joaten da (N-634 errepidean).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Mendatako kalaren ikuspegi orokorra. Eskuinaldean paleobailara eta ur jauziaren kokapena ikusi daitezke.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555438 m / Y= 4793950 m / Alt.= 22 m



Mendatako ur-jauzia eta paleoerrekastoen aintzineko ibilgua.

GIG 41 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrika: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- *Sakoneta* ibilbidetematikoan interpretazio-puntuetakobatda (IPS6), eta hari buruzko informaziogari dago, bai *Flysch biotopoa* gidaliburuan, bai *Geodiversidad de la franja litoral Deba-Zumaia* liburuan. Dagoeneko erabiltzen da Geoparkeko irteera antolatu batzuetan. Aukera didaktiko asko ditu.
- Ondo legoke itsasontziz egiten diren irteeretan leku honi buruzko azalpenak ere ematea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoak	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	4
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	3
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	4
Batez besteko balioa	3,5

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	2
Degradatzeko arriskua:	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)
	Espoliazioa gertatzeko arriskua

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldeei buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko biotopoko eremu hau Babes Berezikoa da.
- EAEko GIGen inbentarioan sartuta dago.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.
- Mendi-ibiliek higadura-arazoak ekar ditzakete, eta hori arretaz zaindu beharrekoa da.

GIG 42

DEBAREN ESTUARIOA

BALIO INTRINTSEKOA: **2**
 BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,75**
 KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Geoparkean bi estuario baizik ez daude –bata, Zumaiakoa (GIG 31), eta bestea, Deba ibaiarena–, eta balio berezia dute horregatik, altxor moduko bat baitira bertako sedimentuak: Holozenoan zehar (10.000 urtean) itsas mailan nahiz kliman gertatutako aldaketei buruzko informazioa duten altxor bikainak.

Estuarioko hondakin sedimentarioak Debako herrigunetik hasi eta ia Sasiolako meandro ahokatura bitartean daude kontzentratuta. 30 metroko zundaketa baten azterketa sedimentologiko eta paleontologikoak eremu hori sedimentuz betez joan zeneko sekuentzia bat erakusten du, eta sekuentzia horretan garbi ikusten da Holozenoan zehar itsasoaren eragina apurka-apurka gutxituz joan zela. Erregistro hori bat dator inguruak izandako bilakaerarekin, horixe izan baitzuen bereizgarri: azken glaziaziotik aurrera (20.000 urte) itsas mailak gora egin izana, alegia. Horrenbestez, glaziazioan Deba ibaiaren ahokatzek sortutako lekua betetzen ari da estuarioa; garai hartan, gaur egungo estuarioa baino 30 metro beherago zegoen, gutxienez.

Lekua leheneratzeko lan handia egin den arren, gehienetan gertatzen den bezala Debaren estuarioa ere oso hondatuta eta antropizatuta dago.

NOLA BERTARATU

Debako herrigunetik oinez, horretarako egokitutako bidean zehar.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Estuarioaren ikuspegi orokorra, Errotazarko erribera aldean.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
 X= 551574 m / Y= 4793454 m / Alt.= 3 m



Leheneratutako eremuaren zati bat.

GIG 42 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa			●	
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena		Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak: Eremu guztia oso antropizatuta dago, hainbat eraikuntza-lan baitaude, hala nola zenbait dike, futbol-ze-laila eta nekazaritza-ustiategi batzuk.				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	2
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	1
Batez besteko balioa	2

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Paduren aldea leheneratuta dago neurri batean, eta han zehar ibiltzeko bide bat dago.
- Euskal kostaldeko estuarioen sorrera HAB proiektuaren baitan azaldu daiteke Casacampo inguruan behatoki bat jarri.


BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	1
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	2
Zenbateraino ikusten den garbi	2
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	2,75

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	3	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	4
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	3
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Itsas-lehorreko jabari publikotzat hartua, kostaldee buruzko 22/1988 Legean emandako babesa kontuan hartuta.
- Gaur egun oso hondatuta dago. Estuarioa erabat hondatu baino lehen hari buruzko azterketa oso bat egitea komeni da.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.



KARST

GIG 43

ASTIGARRIBIAKO PINAKULU-MOTAKO KARSTA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,88

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Astigarribiako haranaren modelatuan, jatorri karstikoko pinakuluak dira nagusi, eta horiek konokiturako erliebeak sortu dituzte, baita esferaerdi-itxurakoak ere, denak gutxi-asko bakartuak eta kota berdintsukoak, 130 metro ingurukoak.

Mendi-hegalak artadiz estalita egoteak galarazi egiten du kareharrien gainazal meteorizatua xehe-tasunez ikustea, baina lapiaz bat garbi samar ikusten da, erdi estalita. Modelatu karstiko hau *karst poligonal*, *dorre-karst* edo *cockpit-karst* motakotzat har daiteke, sakonuneen arteko erliebeak konokiturakoak ditu, eta eskualde heze epeletako eta tropikaletako modelatu tipikoa da. Airetik ikusita arrautza-kaxa bat dirudien topografia-mota hau gainazalaren disoluzioz eratua da, eta Sasieta inguruetan, zehazki, gainazal hori 150 metroko altueran dago. Goitik beherako disoluzioz eratutako modelatu exokarstikoaren oinarri izan den gainazal hori (ziur asko higadura-gainazal bat dena) gaur egungo kostaldean hasi eta, ibaiaren haranean aurrera, Sasieta meandroraino hedatzen da. Horregatik, substratuaren litologia berdina den arren, ibaian gora haranaren barrualdean dauden erliebeak askoz kota altuagokoak dira (350-400 metro inguruko altitudekoak). Oina 48-50 m-ra duen dolina handi batek bereizten ditu 150 metroko kota duten mendiak eta 350 metrotik gorakoak.

Erliebe horiek Erlo formazioko kareharri kretazeo urgondarrez osatuta daude.

Pinakulu handienetako bat erabat deseginda eta hustuta dago, Sasiolako harrobia dela tarteko.

NOLA BERTARATU

N-634 errepidea hartuta, harrobiaren beraren inguruan.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Gi-3230 errepidetik, Astigarribiako ermitaren parean.



Sasiola inguruko pinakulu taldea.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 550772 m / Y= 4792195 m / Alt.= 113 m



Astigarribiako pinakulua.

GIG 43 BALORAZIOA

BALIO INTRINTESEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean ●
Interes kulturala: Astigarriabiako ermita.				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	2
Batez besteko balioa	3

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- HAB proiektuaren baitan garatu daiteke interpretazioa.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	2
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	2,88

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA		
BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrinsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	3
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Gaur egun ez dago legez inolaz ere babestuta. Pinakuluetako bat dagoeneko erabat hustuta dago, Sasiolako harrobia dela tarteko.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeko komeni da.

GIG 44

ERMITIAKO KOKA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2,25**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Ermittia Bekoa haitzuloak Euskadiko lurpeko sare zabalenetako bat osatzen du, Aixako Zuloarekin batera (60. GIGa). Esploratutako eta topografiatutako galeriak 10 km luzean baino gehiagoan igarotzen dira, eta oraindik ere badira esploratzeke dauden eremu ezezagunak.

Aixa bera bezalaxe, barrunbea oso labirintikoa da, eta garapen horizontaleko galeria ugari ditu maila desberdinetan. Sarearen norabide nagusia ESE-WNW da, eremu horretako jarraibide estruktural orokorrei segituz.

Ermittiako galeria gehienak fosilak dira; hau da, gaur egun ez dira aktiboak hidrologikoki. Alabaina, sareko beheko puntu batzuetan maila freatico lokaltzat har daitezkeen tokira iristen da. Trazadura-saiakuntzen bidez egiaztatu da sare hori Erribera Goikoa izeneko iturburuari dagokiola (7 metroko altitueda itsas mailaren gainetik), Deba ibaiaren eskuineko ertzean.

Ermittia Bekoari dagokionez, nabarmentzekoak dira haren espeleotemen ugaritasuna eta edertasuna, depositu flubiokarstikoen ugaritasuna eta kontserbazio egoera bikaina, bai eta galerien morfologia ere. Sarbidea zulo obalatu bat da, 1 m² pasatxoko sekzioa duena; ez da berez oso erakargarria, eta ez du iragartzen barruan ezkutatzen dituen edertasunak.

NOLA BERTARATU

Ermittia Bekoko sarbidea asfaltatu gabeko bidearen barrenean dago. Bide hori Debatik abiatzen da, eta Deba ibaiaren eskuineko ertzaren gaineko mendi-mazelaren erditik igarotzen, herritik 2,5 kilometrora, gutxi gorabehera.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Sarreratik hurbilen dauden galeriak izan ezik, ez da egokia bisitari-mota guztientzat. Gomen-dagarria da espeleologian nolabaiteko maila eta esperientzia izatea.




Kobako galeria nagusiaren ikuspegia. Argazkia: Jose Manuel Franco.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X = 551534 / Y = 4791878 / Z = 68



Ermittiako kobazuloaren barnealdea.

Argazkia: Jose Manuel Franco.

GIG 44 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa		●		
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa		●		
Paleontologikoa				
Petrologikoa		●		
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrika:				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala: Astigarribiako ermita.				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,25

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Ikasleek bisitatu ohi dute, eskola-kiroleko programaren barruan.
- Oso labirintikoa da, eta badu nolabaiteko zailtasuna. Espeleologoek gidaturik bakarrik bisita daiteke. Bisitak aukera ematen du haizulo baten eraketa-prozesuak azaltzeko, eta esperientzia ederra da.
- Geoparkeak susta dezake bisita hori turismo- eta hezkuntza-programazioan, Felix Ugarterekin lankidetzan. Sarreran jar liteke panel bat, Historiaurreko Bailararen (HAB) esparruan.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	1
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	1
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	2,6

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	3
Degradatzeko arriskua:	
Erabilera publikoak eragindakoak (nigadura, zaborra...)	1
Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
Espoliazioa gertatzeko arriskua	4

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Kobazuloa ez dago babestuta.
- Kontrolatu egin behar dira sartu-irtenak eta Debako arau subsidiarioetan sartu behar da geologia-interesgunea (GIG).

GIG 45

PRAILEAITZ KOBAZULOA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3**

KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Praileaitz kobazuloa Astigarribiako pinakulu-motako karstean (GIG 43) dago, bertako pinakulu nagusiaren iparraldeko hegalean, zehatz esatera, eta oso gertu du Sasiolako harrobia, pinakulu hori hustu duena: harrobiaren eremutik kanpo baina muga-mugan dago kobazuloa.

Oso kobazulo ezaguna da, bertan aurkikuntza arkeologiko bikainak egin direla eta; tartean, Madeleine aldiko labar-pinturak.

Alderdi geologikotik, Geoparkearen lurraldean aurkitu diren 150etik gora zuloen erakusgarri bikaina da kobazuloa, eta berezitasun bat ere badu, gainera: alderdi arkeologikotik duen interesa dela tarteko, bertako betekin sedimentarioa xehe-xehe aztertu da.

Praileaitz kobazuloa 100 metro inguru luze da, eta NW-SE norabidean dago, Bizkai Iparraldeko Antiklinorioarekiko paralelo, bai eta Izarraitz mendiguneko zartadura-sistema nagusietako batekiko paralelo ere. Atari moduko bat du haitzuloak, baina harri ugari daude erorita, eta ia erabat itxita dago. Ezkerraldean nahiz eskuinaldean galeria bana hasten dira, eta horietan aurrera joanda, bi galeriek bat egin ondoren, gela handi samar batera iristen da. Kobazuloaren ahoa ere, ipar-ekialderantz begira dagoena, ia erabat itxita dago.

Barruneko betekin sedimentarioan gutxienez 7 fase sedimentario bereizten dira, tartean higadura-prozesuak daudela. Sedimentu horiek historiaren berri ematen digute: duela zenbait ehunka mila urte-tik hona faktore klimatiko, egiturazko edo/eta geomorfologikoen eraginez sedimentuak nola metatu diren, hain zuzen.

NOLA BERTARATU

Kobazuloa ez dago jendeak ikusteko irekita.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Ezin da ikusi.



Praileaitzeko santutegiaren barruko galeria. Argazkia: Sonia San José.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 551388 m / Y= 4791984 m / Alt.=55 m



Praileaitz kobazuloaren sarrera; garbi ikusten da sedimentu zulatua marka. Argazkia: Sonia San José.

GIG 45 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				●
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra		Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		Izan dezakeena	●
Interes kulturala: Madeleine aldiko aztarna arkeologikoak.				
Oharrak: Kobazuloaren inguruan polemika handia piztu da, harrobiaren ustiapena dela eta.				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	1
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	2,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Kobazuloa itxita dago. Jendeak ikusteko beste kobazulo bat prestatzea da gure gomendioa. Leku hori bera oso interesgarria izango litzateke arkeologiarekin lotutako ibilbide tematiko bat prestatzeko.
- HAB bailararen baitan Praileaitz gunea sortu.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	2
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	x
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	x
Azpiegiturak eta zerbitzuak	x
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	x
Batez besteko balioa	3

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	2
Degradatzeko arriskua:	
Erabilera publikoak eragindakoak (nigadura, zaborra...)	1
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	
Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	4
Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Kobazuloa monumentu izendatuta dago, eta gaur egun segurtasun-perimetro bat dauka ezarrita, 50 metrokoa, kobazuloa aztertzen diharduten arkeologoentzat ez nahikoa.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeko komeni da.
- Geoparkeak kobazuloaren kontserbazioa zaindu behar du. Geoparkearen ikurretako bat ere izan daiteke Praileaitz.

GIG 46

SASIOLAKO MEANDROA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,50**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,50**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Deba ibaiak ferra-formako meandro bat egiten du Sasiola auzoan. Ibaia NE norabidean dator, faila baten ibilbideari jarraituz, eta kareharrizko horma gogorrenekin talka egiten duen lekuetan pinakuluak (GIG 43) saihesten dituenez, meandro estu samar bat sortzen da.

Kontuan izanda pinakuluek oinarrian duten higadura-maila 150 metroko altueran dagoela eta gaur egun ibilgua metro gutxi batzuetara baino ez dagoela, ondorioa garbia da: 100 metro baino gehiagoko ebakidura egin du ibaiak kareharrian.

Sasiolako meandroan bikain ikusten da higaduraren ekintzaz zer-nolako dinamika sedimentarioa izaten den horrelako formazioetan. Meandroaren barrualdean terraza bat ageri da, garbi, eta litekeena da terraza hori etenka bada ere Debako estuarioko (GIG 42) sedimentuz osatua izatea. Kanpoaldean hitatuak izan dira, eta barrualdean, aldiz, sedimentuak metatzen jarraitzen du.

NOLA BERTARATU

N-634 errepidea hartuta, Sasiola auzoaren inguruan.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Meandroa osorik ikusteko begiratoki egokirik ez da aurkitu. N-634 errepidean zehar ikustea da onena.



Sasiolako meandroaren ikuspegia HAB-ko behatokitik.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 551504 m / Y= 4791965 m / Alt.= 1 m

GIG 46 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa			●	
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen		izan dezakeena	Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	2
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	3
Batez besteko balioa	2,5

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- HAB ibilbideko behatokia da meandro hau ikusi eta ulertzeko lekurik aproposena.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	4
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	2
Zenbateraino ikusten den garbi	2
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	3
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	2,5

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	1
Degradatzeko arriskua:	
Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	
Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	2
Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Gaur egun ez dago legez inolaz ere babestuta.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 47

KIPUTZ AZTARNATEGI KUATERNARIOA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,33**KALTEBERATASUN-MAILA: **2**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Kiputz aztarnategia Arno mendiaren ekialdean dago, eta Behe Kretazeoko kareharri urgondarretan eratutako barrunbe karstiko bat da. 6 metro inguruko sakonera duen leize bat da Kiputz (bertkala dela, alegia), eta tranpa natural moduko bat izan zen inguru hartan bizi izan zen faunarentzat duela 20.000-15.000 urte; Kuaternarioan, beraz, azken glaziazio handian.

Leizeko betekin sedimentarioak 4,5 metro inguruko lodiera du, eta hartan, zenbait maila ageri dira nahasita, hala nola buztin-mailak, kare-mailak eta hormetatik beraietatik eroritako blokeen bretxak. Barrunbea 2002. urtean aurkitu zuten, eta zenbait indusketa-kanpaina egin ondoren, Kantauri itsasoa-ren ertzean kanporatu den Goi Pleistozenoko ugaztun-hezurren kontzentrazio handienetako bat ateratzea lortu da. Guztira 13.000 hezur baino gehiago berreskuratu dira, eta haietan oinarrituta orain gauza ziurra da han egon zirela (eta hil), beste zenbait animaliaz gain, 48 orein, 23 elur-orein eta 18 bisonte. Hain zuzen ere, 900 kilo inguruko estepako bisonte heldu batek utzi digu pieza fosil ikusgarriena: adar-mutur batetik bestera 90 cm luze den garezur bikaina, Iberiar Penintsula osoan oso-osorik aurkitu den bakarra.

Lurzorua, jatorri karstikokoa, alkalinoa da, eta horri esker kontserbatu dira hezurak hain ondo. Adin horretako aztarnategi gehienetan ez bezala, Kiputzen ez dago giza jardueraren arrastorik batere, eta horrexek egiten du berezi. Izan ere, hori horrela izateak ohiz kanpoko bihurtzen du leize honetan kontserbatutako fauna, garai hartan inguruko ekosisteman zeuden espezieen lagin adierazgarritzat har daitekeenez.

NOLA BERTARATU

Ezin da leizera sartu.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Eusko Jaurlaritzak material arkeologiko eta paleontologikoak gordetzeko Intxaurrondon duen biltegia.



Kiputzeko bisonte-garezur ezaguna, berreginda.

**EZ DAGO KOKALEKU
ZEHATZA EMATERIK,
ESPOLIAZIOA GERTATZEKO
ARRISKUA DAGOELAKO
ETA AZTARNATEGIA ITXITA
DAGOELAKO.**



Kiputz aztarnategiko sarrera 2004 urteko indusketan.

GIG 47 BALORAZIOA

BALIO INTRINTESEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				
Hidrogeologikoa				
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				●
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	●	Zenbait
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena		Jardunean
Interes kulturala:				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	4
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	4
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	3
Batez besteko balioa	3,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Leizea ez dago jendeak ikusteko irekita. Han jasotako materiala Gordailuan gordeta dago.
- Ondo legoke garezurra eta gainerako piezak Geoparkean bertan ikusi ahal izateko leku egoki bat prestatzea.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	x
Zenbateraino ikusten den garbi	x
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	x
Azpiegiturak eta zerbitzuak	x
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	x
Batez besteko balioa	3,33

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrinsekoa	2	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Han lortutako aztarnak leku seguru batean daude jada, eta leizea bera ez dago jendeak ikusteko irekita.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzea komeni da.

GIG 48

OLATZEKO POLJEA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,50**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,13**KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Olatzeko haran ezaguna, Erlo formazioko kareharri urgondarren gainean sortua, eredu bikaina da oin-mailako poljeak nolakoak diren ikusteko. Poljearen alde nagusia, Olatzeko ermita dagoen hori bera, obalatu da itxuraz, eta 35 hektareako azalera du, gutxi gorabehera. Handik bi ibar sortzen dira: Añu ibaiarena, N250°E norabidean, eta Olatzgoikoa ibaiarena, N200°E norabidean. Bi ibar horiek ere Olatzeko poljearen parte dira, eta horrek argi eta garbi adierazten du norabide horietan dauden bi failatan zehar gertatu dela disoluzio karstikoa. Olatzeko poljeiko haranaren hondoak 125 hektarea inguru ditu guztira.

Lasturko poljea bezala (GIG 45), Olatzeko ere oin-mailakoa da: sakonunea maila freatikoak markatzen duela, alegia. Oinarriko gainazala, berriz, bi faktorek daukate zulatuta: batetik, elkar ebakitzen duten dolina ugarien sareak (25 m eta 75 m bitarteko diametroa dute dolinek); eta bestetik, Añu eta Olatzgoikoa ibaien ibilgukuek, poljearen oin-mailatik gora 25 metro baino gehiagoko ebakidura baitute egina, gaur egungo maila freatikoak poljea eratu zen garaiko maila baino beherago dagoela eta.

Olatzeko urak lurpeko sistemara iragaten dira, bai dolinetan zehar bai Kobaldeko sarbegi handian zehar; azken horrextan behera desagertzen dira, hain zuzen, Añu nahiz Olatzgoikoa ibaien urak. Benetan ikusgarria da Kobaldeko sarbegia, neurritz itzelezkoa, eta sedimentu buztintsu eta hareatsuak aurkitu dira han, bai eta *slackwater* motako konglomeratuak ere. Zenbait iturburutara eramaten ditu Olatzeko urak: zuzen joanda 3 km aurrerago Deba ibaiaren ezker aldeko ertzean dauden iturburuetara. Egiaztatu denez, gehienetan oso bizkor joaten da ura (gutxi gorabehera, 170 m/h-ko abiadura), eta horregatik, jario horiek ez dira iristen eremu urez asera, ezta igarotzen ere akuiferora.

NOLA BERTARATU

Mutrikun Gi-3562 errepedea hartu behar da, Olatz auzora.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ, haranean zeharreko bidean oinez joanda edo Miruaitzen gailurretik.



Olatzeko poljearen alde nagusiaren ikuspegi orokorra; neurri handiko dolinak gainjarrita egoteak markatzen du lekua.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 548094 m / Y= 4792983 m / Alt.= 199 m



Poljearen oinarri irregularrak maila freatikoarekiko desoreka azaltzen du.

GIG 48 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa			●	
Tektonikoa / Egiturazkoa		●		
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala: Garrantzi handiko ondare etnologiko eta historikoa.				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	4
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,5

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Olatzeko georuta eta ibilbide gidatua sustatu.
- Kobaldekoko behatokia prestatu.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	4
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	2
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	3,13

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	3	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	2
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	2
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Gaur egun ez dago legez inolaz ere babestuta.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeko komeni da.

GIG 49

KOBALDEKO SARBEGIA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,38**

KALTEBERATASUN-MAILA: **1,75**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sarbide handia du, eta Olazko poljearen punturik baxuenean dago. Hori kontuan harturik, puntu ezin hobe da poljeak nola drainatzen diren ikusteko eta ulertzeko.

Olazkoa (48. GIGa) oinarri-mailako poljearen adibide bikaina da: hondo horizontala eta nabarmen laua duten kareharrien gainean eratutako sakonune itxi bat, zeina bat etorri baitzen maila freatikoaaren posizioarekin poljea eratzen ari zen bitartean, maila-egonkortasunarekin eta aldi luze batez.

Arro itxi horiek lur azpian drainatzen dira, eta, maiz, ondo garatutako konduktuen bidez, zeinak hustuleku izeneko infiltrazio-puntu lokalizatu eta jakinetan elikatzen baitira.

Olazko poljearen kasuan, bereziki ikusten da ezaugarri hori; izan ere, poljeko lurrazaleko ia ur guztiak bi erreka laburretan antolatzen dira, zeinak desagertu egiten baitira azkenean Kobaldeko hustulekuan. Hustuleku horrek sarbide ikusgarri bat du, eta 500 metro luzean jarraitzen du, harik eta ibilgaitz bihurtzen den arte.

Egiatzaturik dago hango urak Deba ibaiaren ezkerreko hainbat iturburutan azaleratzen direla, 3 km inguruko distantzian, eta fluxuaren abiadura oso handia dela. Ezaugarri horrek berresten du fluxua lehentasunezko konduktuen bidez igarotzen dela.

NOLA BERTARATU

Mutrikutik, GI-3562 errepeidea Olatz aldera hartuta.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Kobalde sarbegiko sarrera nagusia.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X = 548133 / Y = 4792898 / Z = 180



Sarbegiaren sarreran pilatu diren Slacwater sedimentuak.

GIG 49 BALORAZIOA

BALIO INTRINTESEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa		●		
Hidrogeologikoa				●
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa:				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala: Garrantzi handiko ondare etnologiko eta historikoa.				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	2
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	3
Batez besteko balioa	2,75

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Gaur egun, landarediak galarazi egiten du hustulekua behar bezala ikustea.
- Potentzial handia du poljearen sarreraren gainean ibilbide txiki bat eraikitze, plataforma eta guzti.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	4
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	3
Azpiegiturak eta zerbitzuak	4
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	4
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	3,12

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra
Kalteberatasun intrintsekoa	2
Degradatzeko arriskua:	
Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	2
kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	
Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	2
Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Hustulekua Arnoko Kontserbazio Bereziko Eremuaren barruan dago.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan sartu behar da.
- Aldian-aldian gainbegiratu behar da sarbidearen egoera.

GIG 50

KOBETAKO SIMA

BALIO INTRINTSEKOA: 2

BALIAGARRITASUN-MAILA: 1,88

KALTEBERATASUN-MAILA: 1,25

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Kobetako sima Olazko poljearen (48. GIGa) hegoaldeko muturrean dago, 384 metro garaiko pinakulu karstiko bat inguratzen duen ibarbide txiki baten hondoan. Arno mendigunean gehien garaturiko leizea da, bertikalean zein horizontalean.

Leizearen sarbidea 290 m-ko kotan dago: 15 m-ko putzu bertikal bat da, ibarbidearen paraleloan dagoen norabide-haustura baten kontra garatua.

100 m-tik gorako desnibela du, eta haren hasierako garapena bertikala da funtsean: ondoz ondo ageri dira kateatuta karstaren eremu zabala erabat zeharkatzen duten jauziak eta putzuak. Azkenik, lurpeko ibai azpihorizontal txiki batera iristen da, zeina maila freatikoaren egungo posizioarekin lotu baitaiteke. Ibai horrek eremu aserantz bideratzen ditu ur drainatuak, poljearen azalera planifikatuaren azpitik hamar bat metro eskasera.

Barrunbean, forma ederreko berreraikitze litokimikoak ageri zaizkigu, hala nola estalaktitak, estalagmitak, banderak eta abar.

NOLA BERTARATU

Mutrikutik, GI-3562 errepidea Olatz aldera hartuta. San Isidro basiliza igaro ondoren, hegoalderantz jarraitu behar da, Iturritza baserriraino. Simara iristeko, baserri atzeko ibarrean gora igo behar da.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Ez da egokia jende guztiarentzat; beharrezkoa da espeleologia bertikalaren teknika ezagutzea.



Kobetako simaren bertikal handia. Argazkia: Burumendi Espeleologia taldea.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X = 548203 / Y = 4791614 / Z = 290



Kobateko bolumen handiak.

Argazkia: Burumendi Espeleologia taldea.

GIG 50 BALORAZIOA

BALIO INTRINTEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa		●		
Hidrogeologikoa		●		
Tektonikoa / Egiturazkoa				
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa:				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala: Garrantzi handiko ondare etnologiko eta historikoa.				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	1
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	1
Zenbateko garrantzia duen	2
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Sarbide zaileko sima. Espeleologoentzat edo bisita espezializatuentzat bakarrik da egokia.
- Geoparkearen barrunbearen katalogo bat egin behar da.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	1
Balio estetikoa	2
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	1
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	1
Azpiegiturak eta zerbitzuak	1
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	2
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	2
Batez besteko balioa	1,5

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	1	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	1
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	1
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	2

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Arnoko Kontserbazio Bereziko Eremuan dago.
- Mutrikuko arau subsidiarioetan sartu behar da.
- Haitzuloa garbitu behar da.

GIG 51

LASTURKO POLJEA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,13**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Olatzeko haranarekin batera, Lastur ere eredu bikaina da jatorri karstikoko poljeak edo haran itxiak nolakoak diren ikusteko. Olatzekoa ez bezala, baina, haranaren beheko aldean —Lastur Behea deritzona (errotatik beherako eremua)— luzanga da hemen, NW-SE norabidekoa, eta egiturak berak eragin da eratu da hala, sakonean dagoen norabide bereko faila bat tarteko dela, zehatz esatera; failak, izan ere, erraztu egiten du arroka disolbatzea. Haranaren hondoa (Lastur Behea, alegia) deskaltzifikazio-sedimentuz estalita dago, eta 3,1 km inguru da luzean, zuzen neurtuta, eta batez beste 150 metro, zabalean.

Betekin sedimentarioa xeheatasunez aztertuta, gainazal eseki bat bereiz daiteke, paleopoljea gorago zegoeneko antzinako maila batekin lotua. Zenbait lekutan harribilak ere ikusten dira gainazal esekian, antzina Lasturko erreka gaur egun baino zenbat gorago igarotzen zen seinale garbi.

Gaur egun, paleopoljearen gainazal hori oso zulatuta daukate haranarekin lerrotatuta dauden sarbegi eta dolina ondo ordenatu ugariak. Zulaketa hori maila freatikoa jaitsi izanarekin lotuta dago, inondik ere; horrek behartuta, izan ere, erreka ahokatu eta Abeletxe baserriaren inguruetan infiltratu egin zen, eta horrek dolina lerrotatuen multzoa sorrarazi zuen gune horretatik beherantz, batik bat Arruanzar baserriaren inguruetan. Han, dolinak benetan ikusgarriak dira: 75 metro inguruko diametrokoak, eta batzuk, 25 metroko sakonerakoa.

NOLA BERTARATU

Sasiola auzoan Gi-3292 errepidea hartu behar da, eta gero, haranean aurrera jarraitu, errotaraino.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Arbil menditik edo lasturreko kanaletik.



Lasturreko polje luzea Arbil menditik ikusita. Arg. Javier Carballo.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 552347 m / Y= 4790261 m / Alt.= 110 m



Lasturreko errotetako ur saltoa.

GIG 51 BALORAZIOA

BALIO INTRINTSEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa				●
Hidrogeologikoa			●	
Tektonikoa / Egiturazkoa		●		
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
Beste batzuk				
Interes geologikoko elementuen aniztasuna		Bakarra	Zenbait	●
Indize bibliometrikoa: 2				
Interes ekonomikoa (erazketa)	Lehen	Izan dezakeena	Jardunean	
Interes kulturala: Garrantzi handiko ondare etnologiko eta historikoa.				
Oharrak				

BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den berezia geologiaren aldetik	3
Eredu modura zenbateraino den erabilgarria, eskualdeko geologia edo prozesuak erakusteko	3
Zenbateko garrantzia duen	3
Zenbateraino dagoen ondo kontserbatuta	4
Batez besteko balioa	3,25

ERABILERA PUBLIKOA ETA DIDAKTIKOA (material didaktikoa, azpiegiturak, bisitak...)

- Lastur eta Arbil arteko kanaleko ibilbidea osatu georuta berri bat sortzeko.

BALIAGARRITASUN-MAILA TURISMORAKO ETA DIBULGAZIORAKO	
BALORAZIOA	1etik 4ra
Zenbateraino den ulertzen erraza	3
Balio estetikoa	3
Inguruaren ikusgarritasuna eta edertasuna	3
Zenbateraino ikusten den garbi	3
Zenbateraino den erraza GIG hau ikusteko lekurik onenera iristea	4
Azpiegiturak eta zerbitzuak	3
Ba al dagoen inguruan beste elementu kulturalik edo naturalik	3
Ba al dagoen inguruan aisialdiko beste elementurik (hondartzak, trekkinga, piraguak, itsasontziak, BTTa...)	3
Batez besteko balioa	3,13

KALTEBERATASUNA ETA DEGRADATZEKO ARRISKUA

BALORAZIOA	1etik 4ra	
Kalteberatasun intrintsekoa	3	
Degradatzeko arriskua: kanpo-faktoreak eta zergati antropikoak	Erabilera publikoak eragindakoak (higadura, zaborra...)	2
	Garapenarekin lotutakoa, egungoa edo potentziala (azpiegiturak, eraikuntza-lanak...)	2
	Espoliazioa gertatzeko arriskua	1

GEOKONTSERBAZIOA (araudia eta proposatutako neurriak)

- Gaur egun ez dago legez inolaz ere babestuta. EAEko GIGen inbentarioan sartzeko aukeratua izan da.
- Dolinetara obra-hondakinik eta zaborrik inork bota ez dezan kontrolatu beharko litzateke.
- Debako arau subsidiarioetan GIG gisa sartzeko komeni da.

GIG 52

ARBIL MENDIKO LAPIAZ ERDIESTALIA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,50**
 BALIAGARRITASUN-MAILA: **3**
 KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lapiaza ondo garatuta dago Geoparkeko mendigune karstiko guztietan, baina kotarik altuenetan baizik ez da ageri *biluzik*, halakoetan baino ez dago ikusgai; besteak beste, Arbil eta Sesiarte mendietan. Arbil mendiaren hego-mendebaldeko aldeak lurraldeko lapiaz ikusgai zabalenetako bat ageri du. Ingu-ruko hezetasun-maila altua dela eta, lurzoru ugari sortzen da, eta landaretzak laster inbaditzen du hura.

Lapiazak sarbegi naturalak dira, eta haietan zehar euri-ura barneko sistema hidrologikora iragazten denez, eragotzi egiten dute azalean jariatzerik gertatzea. Karstifikazio-prozesuek disolbatu eta higitu egiten dute kareharria. Ura, apurka-apurka, arroka zulatuz joaten da barrurantz, eta denborak aurrera egin ahala, bide nagusi batzuk sortzen dira; haietan zehar erraz igarotzen da ura. Prezipitazio handiak gertatzen direnean, ura barne-barneraino iragazten da lapiazean zehar, eta azalean ez da inolako jariatzerik sortzen, iragazkortasun handiko lekua baita.

Aztergai dugun honetan, diaklasetan zehar sortu da ugari den lapiaz-mota, eta *kluftkarren* edo *grikes* motako formazioak eratu dira horrela. Tarteka, leku malkartsuagotan, ildaska-itxurako lapiazak ere sortzen dira: *rinnenkarren* deritzenak.

NOLA BERTARATU

Sasiola auzoan Gi-3292 errepidea hartu behar da, Lasturko haranaren sarreraraino.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Lasturko haranean sartzeko gaina (Elkorrieta) oso leku ona da, eta Kortaberri baserria ere bai.



Arbil mendiaren ikuspegi panoramikoa, errepidetik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 551978 m / Y= 4790994 m / Alt.= 225 m



Arbil kobazuloko barnekalde zabala.

GIG 52 BALORAZIOA

BALIO INTRINTESEKOA				
BALORAZIOA	TXIKIA	ERTAINA	HANDIA	OSO HANDIA
Geomorfologikoa		●		
Hidrogeologikoa		●		
Tektonikoa / Egiturazkoa	●			
Estratigrafikoa / Sedimentologikoa				
Paleontologikoa				
Petrologikoa				
Mineral-hobiak				
